



## Helmuga, euskara

Asteartera arte eman daiteke izena euskaltegian. Ikasleendako dirulaguntzak daude / 5

**Argentina eta Bakaikuren arteko harremanaren istorioa bildu du Maru Rosónek** / 2-3

**Altsasuko haur eta gaztetxoei bizimodu osasuntsua erakusteko programa hastear** / 8

**Uholdeen arriskuen kontrako plana eginen dute Arruazun, Altsasun eta Ziordian** / 5

**Sakana Bizikleta Eguna urriaren 17an izanen da eta izena ematea zabaldu du Mank-ek** / 16

**Nahia Imaz, Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre Munduko Txirrindularitza Txapelketan daude** / 17

**Imanol Rayo Barandiaranen 'Iñigo' mustuko dute astelehenean, Loiolako basilikan** / 23

## Sakana Itsasi euskaltegia

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin  
Izena emateko azken eguna: irailaren 28a

Gartzia Ximenez 46, behea, ALTSASU  
sakana@ae.k.eus | 948 468 258

### DIRULAGUNTZAK

Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua: BEKAK

**ae.k**  
euskara praktikoa

**Erkuden Ruiz Barroso BAKAIKU**

1913. urtean Luciano Urrestarazu bakaikuarra bizitza hobe baten bila Buenos Airesera joan zen. Ez ziren garai onak Nafarroan, eta ez zekien itzuliko zen ere. Baina ama "besarkada handi" batekin agurtu zuen eta zeruan elkar ikusiko zutela zin egin zion. Duela ehun urte baino gehiago ozeanoa zeharkatu zuen gizon hori ere Maru Rosón buenosai-restarraren birraitona zen. Bakaikuko familiaren historiarekin diasporaren erretratua egin du *Bakaiku, Etxe Bakarra* (gaztelaniaz, *Bakaiku, Casa Única*) film dokumentalean. Bakaikun udan aurkeztu zuten lana.

Maru Rosónek Bakaiku gorputzean darama. Modu literalean, herriaren izena ere orkailan tatuatuta dauka. "Egiten ditudan tatuaje guztiek arrazoi bat dutelako". Bakaiku izena tatuatua zuela, "ikus-entzunezko teknikari ikasketak bukatzen ari nintzen eta ikasitakoa laburtzen zuen proiektu bat aurkeztu behar genuen. Egiten dudak guztiak bezala bizia eta ausarta izan behar zuen". Ausardia aitarengandik jasotako esentzia dela azaldu du Rosónek, Euskal Herriko arbasoetatik jaso zuena. Universidad Nacional de Quilmeseko zuzendari bere historiaren berri ematen ari zela, Pablo Landaburu eta Carlos Castro euskaldunekin elkartu zen, "bere hautaketetan ni bezain biziak direnak". Haiek izan ziren karrera amaierako proiektu bezala dokumentala egitera bultzatu zutenak. "Ideia ez zela hain ezinezkoa erakutsi zidaten".

Rosónek ez zuen Luciano Urrestarazu ezagutu. "Baina amona Elviraren eta aita Omarren erreloatoen bidez bere irudia berregin ahal izan nuen". Lana, hitzaren balorearen garrantziaz "kontratu izatera iristen zela", familiaren batasuna eta ahalegina irakatsi ziela aipatu du. "Nire alderdi askotan balore hauek antzematen ditut, horregatik ahal dudak bezain ongi ohoratzen saiatzen naiz".



Maru Rosón buenosairestara 'Bakaiku, etxe bakarra' dokumentalaren egilea. UTZITAKOIA

# Bakaikun, etxean bezala

Lucio Urrestarazu birraitona bakaikuarren historiatik abiatuta diasporaren erretratua egin du Maru Rosón buenosairestarrak: 'Bakaiku, Casa Única'. Lehenengo pertsonan kontatu du bere historia

**Harremanak**

Luciano Urrestarazu bi anaiekin bidaiatu zuen Buenos Airesera. Baina gutun bidez Bakaikun geratu zen Ramon anai txikia-rekin harreman "handia" izaten jarraitu zuen. Ramonek familiari esaten zion noizean behin

## DOKUMENTALAK ROSÓNEN FAMILIAREN ETA DIASPORAREN HISTORIA KONTATZEN DU

Argentinara gutuna bidali behar zutela, "famiarekin harremanik ez galtzeko". Aldi berean, Luciano, gauza bera irakatsi zion Rosónen amonari eta Argentinako familiari. "Gutunen joan etorri horri esker, Nafarroako eta Argentinako familien arteko zubi suntsiezina sortu zen".

Luciano hil zenean Rosónen aitak, "kate honen maila garrantzitsuenetarikoa", bere amona Magdalenari zin egin zion herria ezagutuko zuela eta gutuna eskura emango ziela. "Horrela, 1974. urteko irailaren 5ean, nire

aitak itsasontzia hartu zuen, bere aitonen herria ezagutzeko helburuarekin". Erreferentzia bakarra mapan markatutako puntu bat zen, Iruñean, Margaritaren etxean, Ramon osabaren alaba. "Garai horietan bidaiek hilabeteak irauten zuten eta noizean

## 1970KO HAMARKADAN BISITATU ZUEN MARU ROSÓNEN AITAK LEHENENGO ALDIZ BAKAIKU

behineko komunikazio bat". Margaritak eta Primitivok, senarrak, Omar Bakaikuraino eraman zuten, "eta bertan gertaera izugarria izan zen". Margarita eta Primitivo dokumentalean agertzen dira.

Lehenengo bidaiak horretatik, Buenos Aires eta Bakaikuren arteko bidaiak etengabeak izan ziren. "Are gehiago, uste dut urte bat bete nuenean nire aita bertan zegoela Ramon eta bere alabekin, eta bertatik 'Zorionak zuri' abestu zidaten".

**Bakaiku**

Denborak aurrera egin zuen, "baina ez genuen harremana galdu. Gehienbat, nire aitak Bakaikurekin zuen harremana". Rosóndako Bakaiku herri bat baino ez zela uste zuen, "hiritik urrun, Espainiako Estatuan zegoela". Noizean behin Argentinara bidaiatzen zuen osaba edo lehen-gusuren bat ikusten eta entzuten zuen, "baina oso txikia nintzen, eta ez zen nire interesekoa".

Dena Rosónen nerabezaroan aldatu zen: "Istripu bat izan nuen eta larriki ospitalizatuta egon nintzen. Ebakuntza kirurgiko asko pasa behar izan nituen. Garai horretan herritxo horretatik senideak etorri ziren bisitan, eta niregatik kezkatuta zeuden". Ezin zuen ulertu, nola ia ezagutzen ez zuen jendea, gertuko senideak bezain arduratuta egoitea. "Momentu horretan nire jakin-mina piztu zen, eta ulertzeko lehenengo pertsona eza-gutzeko beharra sentitu nuen".

"Nire gurasoek hilabete batarako joan eta etorri bidaiak erosi zezaketen bakarrik". 16 urterekin ezin izan zion "horrelako abentura bati" ezetz esan. "Pixka bat errekuferatu nintzenez eta ebakuntzaren zaurien sendaketak egingo nituela zin eginda, zauriak oraindik ez zirelako guztiz osatu, hegazkina hartu nuen". 2006. urtea zen, eta dagoeneko teknologia berriak garatuak zeuden eta komunikatzeko modu gehiago zegoela aipatu du Rosónek, "baina ez orain bezainbeste. Zorte pixka batekin familian ordenagailu bat



**EGOKI**  
Ventanas PVC Lehoak  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





'Bakaiku, etxe bakarra' dokumentalaren grabazioaren une bat. UTZITAKOIA

zegoen eta garatuenean e-posta zuten. Are gehiago herrian. Internetera konektatzeko gune bakarra zegoen, eta arazo asko zeuden". Orduetegi desberdintasuna eta txanpon aldaketarekin batera, "komunikazioa oso garestia zen orduan".

#### Etxea

Osaba-izeben eta lehengusu-lehengusina guztien izenak agertzen ziren nota bat zen Rosónen erreferentzia bakarra Bakaikura iritsi zenean. "Dena izugarria iruditzen zitzaidan. Aireportuan bertan ate batetik beste batera ibilgailuan joan behar izatea; euskara niretako ulertezina zen. Nola gurea bezalako komunitate batean beste hizkuntza bat hitz egiten zuten". Lehenengo egunak ezziren oso onak izan, "moldatzea kostatu zitzaidan". Regina Ramonen alabaren etxean gelditzen zen, gaur egun Bakaikura etortzen denean bertan gelditzen da ere, eta berak haiei buruz zerbait zekien arren, "haiek nitaz gehiago zekiten. Oso adeitsuak ziren eta nabaritzen zen etxean bezala egotea nahi zutela". Baina Rosón oso gaztea zen, eta "urbanizatuago" zegoen toki bat espero zuen.

"Sabinorekin, Reginaren senarrarekin, lehengusina txikiena zaintzen zuen, eta euskaraz hitz egin behar zitzaion, bestela ez zidan ulertzen". Bertan euskal ohiturekin "nahasten" hasi zen: "ile motza, hamaika arrazoiengatik festa egitea, Buenos Airesko janzteko estereotipoetatik at ego-

tea, ohiturekiko errespetu osoa... Gaztetatik grabatutako detaileak izan dira". Lehenengo egunetan Argentina faltan botatzen zuelako negar egiten bazuen, agurra esateko momentua iristen ari zenean, itzuli nahi ez zuelako negar egiten zuen. "Praktikanteak egunero sendaketak egiten zizkidan eta zauria ez zela sendatuko itzuli eta bertan berriz ireki artean, ospitaleko birus bat nuelako. Beragatik ez balitz, ez nintzateke hemen historia hau kontatzen egongo".

Bakaikura egindako bidaia hori lehenengoa baino ez zen izan. Beste bitan egon da Rosón Bakaikun. "Geroz eta guztiaz kontzienteagoa izanda eta harro egonda Buenos Airesko pertsona bakarrenetarikoa izan behar naizela, nire arbasoekin hain lotuta dagoena". Argentinan euskaraz hitz egiten entzun ahal izan duenean, "irribarre bat" eragin diote, "zuzenean herrira eramaten nautelako". Euskararen praktika galdu duela azaldu du Rosónek, "Argentinan zaila delako ongi irakasten duen zentro bat aurkitzea, nire ordutegiaren bat egiten duena". Bere izaera "xelebregatik" gauzak eta proiektu asko ditu, eta euskara "gainditu gabeko irakasgaia" da.

### SENIDEEN IZENAK AGERTZEN ZIREN OHAR BAT ZEN ERREFERENTZIA BAKARRA BAKAIKUN

#### Dokumentala

*Bakaiku, Casa Única* dokumentala egiteko ikerketa prozesuan Urrestarazuren eta haren oinordekotatik haratago joaten zela konturatu zen Rosón: "Euskal komunitate orokorra hartzen zuen". Hainbat historia ezagutzen joan zen, "eta pentsatutakoa baino euskal familia gehiago ginela ikusi nuen". Haietako askok bere arbasoen inguruko ikertzeko motibatu dituela esan zioten. "Beste batzuek ni motibatu ninduten proiektuak merezi zuela ikusteko".

Prozesu horretan Santiago Espinosa Aramburu ezagutu zuen sare sozialen bidez. Antzeko historiak zituztela kontatu zion. "Bere birraitona ere bakaikurra zen, baina berak ez zeukan hainbesteko harremanik. Modu batean edo bestean herriarekiko harreman gehiago izateko kontaktua zuen nirekin". Dokumentalari esker, pandemia aurretik, Espinosak Bakaiku ezagutu ahal izan zuen. "Eta bera ere herriaz maitemindu zen":

Lana aurrera eramatea ez dela erraza izan azaldu du Rosónek: "Dokumentalean pertsonen hutsune garrantzitsuak, grabazioetarako joan-etorri asko, arazoak eta pandemia bat erdian... zulo beltzenez egon arren, beti zegoen zerbait aurrera egitera behartzen ninduen". Azkenean, proiektuak aurrera egin zuen, eta uztailean ikus-entzunezko teknikari tesia aurkeztu zuen Universidad Nacional de Quilmesen. Bederatzi bat atera zuen.

#### Etxe bakarra

"Titulua izan zen aldatu ez nuen gauza bakarrenetarikoa". Nafarroako senideekin hitz egiten esan zioten Bakaiku bakarra eta etxe hitzen elkartzea dela. "Arrazoizkoa iruditu zitzaidan, gainera, ez dut kasualitateetan sinesen, bai kausalitateetan. Munduko hainbat tokitan egon arren, Bakaiku da etxean bezala sentitzen naizen toki bakarra".

Bakaikuko udako agendan Bakaiku, Etxe Bakarra dokumentala proiektatu zuten herrian, eta Rosónekin bidaiei bidezko hitzaldia ere izan zuten. Gaur egun, dokumentala sareetan publikatuta dago, "eta hedatzen ari da. Ezin dut sinestu". Arte lana "oso zaila" dela esan du, "baloratzea oso erlatiboa delako". Baina proiektuan jarritako esfortzu guztiak merezi izan duela esan du Rosónek. "Nire burua exijitzen jarraituko dut, pertsona eta profesional bezala garatzen jarraituko dut". Arbasoei omenaldia egin dielako "kontzientzia lasai" duela aipatu, "eta gure kate ederrari maila bat gehitu diot". Etorkizunerako belaunaldiari haien historia ezagutzeko aukera eman die. "Nire bizitzako proiektu gorena izan da, doku-

### DOKUMENTALAREKIN ARBASOEI OMENALDIA EGIN DIELAKO "KONTZIENTZIA LASAI" DU

mentatuz gure erara, bizitutako une bakoitza".

#### Detaileak

Pandemia garaian "barrurako bidaia" egin zuen, eta etorkizunean "arbasoak eta herria" ondoan izan nahi dituela ondorioztatu zuen. "Aurrera egiteko, borrokatzeko eta nire sustraiekiko errespetu hori nire barruan egongo den su bat izango da, euskaldun egiten nauena".

Dokumentatzearena bizitzak irakatsi diola esan du Rosónek. "Ez zidaten bakarrik ikasketetan irakatsi. Detailetara adi egotea, nire jakin-minarikasuegitea". Gustatzen zaionean lan egiteko bidea hartu duorain: ikus-entzunezkoak, sareak eta komunikazioak. "Dokumentala lehenengo urratsa dela ulertzen dut, izan nahi dudaren lehenengo urratsa". Proiektua zabaltea nahi du ere.

Ezin du espektatibei buruz hitz egin, "dokumentalarekin gertatzen ari denaz jabetzen ari naizelako oraindik". Hala ere, euskal eta buenosaiestar komunitateen zerbitzura egongo dela esan du: "Horrela antzematen dudalako nire burua". Argentinan zein Nafarroan, "honetan lan egitea" amesten du; "Unibertsoak eskaintzen didan aukera guztiak baliatuz". Momentuz, autonomo bezala izena eman du, lanean ari da, euskara ikasi nahi du eta dokumentalean kontatutako historia eleberri batean ere garatu nahi du. Nafarroara itzuliko da.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

## Parte hartzea

Azkenaldi honetan, herritarren parte hartzerako bide berriak abiatzen ari dira zenbait tokitan. Asmo ona, berez, herritarrok gure iritzia emateko eta zenbait erabakitan esku hartzeko aukera ematen digutelako. Eta, bidenabar, herritarren parte hartzeko kultura bulkatzeko eta lanbide honetan hezteko balio dezakeelako.

Nire iruditiaz, ordea, prozesu horien oinarriko arauak zeintzuk diren azaltzea eta komunikatzea izan beharko luke lehenengo urratsa, hau da, helburua zein den adieraztea, helburu hori nork erabaki duen jakinaraztea, bideratu nahi den parte hartzea erabakiaren zein puntutan hasi eta bukatzen den. Nola esan, esku hartze prozesuaren aurreko urratsak, baldintzak eta arauak zeintzuk diren edo izan diren jakinaraztea, balizko emaitzak (ideiak, proposamenak) nola gauzatuko diren edo ze ibilbide izanen duten ahalik eta argien herritarrei azaltzea.

Behin aurreko pausoa egin ondoren, prozesuan ahalik eta herritar gehien iritzia jakiteko eta kontuan izateko ze bide erabiliko diren ezagutzera ematea. Garbi dago, ustez, mundu guztiari ematen zaiola aukera parte hartzeko, hori hala da; baina, parte hartzeko baldintzatzaileak ere badirela kontuan hartu beharko litzateke. Gauza hauek konplikatuak direla jakinda ere, jendearen parte hartzea baldintzatuko duten eta

zenbaitetan galaraziko duten zenbait kontu izan badirela aurreikustea: esate baterako, herritarrok esku hartzeko dugun denbora; denboraz gain gogoia edo gogoia falta dugun, eta gogoaren azpian dauden arrazoiak (esaten ohi ez direnak); publikoki iritzia eman nahi ez izatea; horrelakoetan esku hartzeko ohitura falta; herritar batzuegana iristeko egon daitezkeen zailtasunak. Beraz, parte hartzeko bide desberdinak aurreikustea eta bideratzea ongi legoke. Pentsatzen dut hala izanen dela, gainerakoan, itxurazko esku hartzea...

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## GUTUNA

### Etxera itzultzea, elkartzeko ibiltzea

**MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA ETA JONE GALARZA LARRAIOTZ**

SARE NAFARROAREN IZENEAN

Irailaren 29tik urriaren 2ra, ibilaldi batek Nafarroa zeharkatuko du presoak etxeratze prozesuari bultzada emateko asmoz, ulertzen baitugu prozesu hori ezinbesteko ekarpena dela bizikidetzaren demokratikoaren esparru bat sendotzeko eta, horri esker, indarkeriak eta sufrimenduak markatutako ziklo historiko luze bat ixteko. 350 kilometroko ibilaldia izango da, 350.000 pauso inguru, milaka nafarren oinek emango dituztenak guztiontzat bakea eta askatasuna dakartzan helmugarantz aurrera egiteko helburuarekin.

Iritsi da gure ustez une historiko hori, presoek espetxea atzean utzi eta etxera itzultzeko prozesuari ekiteko. Etxera itzultzea, zein bere herriko bizitzaren parte izateko berriz. Etxera itzultzea, bat gehiago izateko, bake eta askatasun betean bizitzeko esparru bat sendotzen laguntzeko. Iraganeko zauriak ixteko eta etorkizuneko bideak jorrazteko garai historikoa iritsi da.

## ZUZENKETA

Joan den asteko Uharteko Arakilgo suteari buruzko erreportajearen, 3. orrian, oker eman genuen txekorra askatu eta lurra bota zuenaren berri. Ez zen Peioren osaba izan, Joserena baizik.

Bakerako bidean ibiltzeak ez du sekreturik. Konplizitateak ehuntzea da, adostasunak eraikitzea, hitz egitea, entzutea, eztabaidatzea, erabakitzea... denon artean eta denontzat. Eta argi izatea apustu honetan denok irabazten dugula. Azken urteetan aurrerapauso handiak egin ditugu horretan. Aurrerapen praktikoak tantaka iristen ari dira, ordea. Salbuespen politika da nagusi oraindik, eta ez da legea modu proaktiboan aplikatzen behin betiko konponbideari begira.

Ezinbestekoa da, beraz, Nafarroako gizartearen nahia kalean ikusgai jartzea eta eraginkorra izatea. Ezinbestekoa da Nafarroako

errepideak bakearen eta askatasunaren aldeko ibiltariz betetzea. Dударik gabe, Lesaka eta Berriozar arteko ibilaldia mugarri bat izango da etorkizunerako. Eta mugarri hori bere mentorea izan zenari eskertu behar diogu hein handi batean, beti gogoan dugun gure Fran Balda maiteari. Bere herriari erabateko atxikimendua zion gizona zen Fran, beti bidean, beti zapatilak jantzita. Hain zen egia hori, ezen heriotza bera ere errepide bazter batera joan zitzaion bila, etengabe ibilian zebilelako. Hartu atseden orain, Fran, guk lotuko ditugu gure oinetakoak bidearen bukaeraraino iristeko.



## OBJEKTIBOTIK



sakanamank\_kirolak Ttipi-ttapak edo paseo osasuntsuak eman nahi dituzu gure taldeekin? 📷 👤 👤 👤



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**GK diseinu zerbitzua:**

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus  
618 640 056

**Administrazioa:**

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**

Patxi Flores Lazkoz

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**

Lune Trecet Obeso  
maketatzaia@guaixe.eus

**Publizitatea:**

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**

# Uholde arriskuen aurrean jarduteko planak egiten

Arruazuko, Altsasuko eta Ziordiko udalek eginen dituzte plan horiek. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso dute hiru udalek. Gainera, baimena jaso ondoren, Ziordiko Udala harresi bat jasotzen ari da

ARRUAZU / ALTSASU / ZIORDIA

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Uholde Arriskuen Aurkako Udala Jarduketa Plana egiteko dirulaguntza eman die Arruazuko (5.057,8 euro), Altsasuko (6.850 euro) eta Ziordiko udalei (5.057,8 euro). Hiru udalek planak azaroaren 19rako eginak izan behar dituzte dirulaguntza jaso nahi izanez gero.

Ubeldeak gainezka egiten duenean, **Arruazuraino** iristen da ura. Ur emari handia izan denean, garai batean, etxean zegoen azienta lehen solairura ere igo izan zuten. Gorka Ovejero Ganboak azaldu duenez, ubeldeak berak ere garbitzeko premia du, "Uharteko eta Arruazuko mugan dagoen zubipean adar ugari daude".

**Altsasuri** dagokionez, Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi du herria uholde arrisku guneen artean sartu dutela Urdalur urtegitik hurbil ego-tegatik.

**Ziordian**, azkenik, ubelde ondoko Dona Luzia eta Egutera kaleak eta txipudia parkeak dira urpean gelditzeko aukera dutenak ur emaria handia denean. Olatz Irizar Martinez alkateak azaldu duenez, "legegintza hasieran,



Uholdea Arruazuko kaleaundi kaleraino iritsi zeneko bat. ARTXIBOA

uholdeen eragina jasaten duten bizilagunekin egon ginen". Bileran jasotako proposamenen artean dago ibaiaren ertz batean harresi txiki bat egitea. "Harresi horrek uholdea oso handia denean ez luke babestuko, baina maila ertaineko uholdeak direnean ura etxeetatik urrun mantenduko luke" azaldu du Irizarrek. Lan hori egiteko Ebroko Ur Konfederazioaren baimena jaso du udalak eta, dagoeneko, hura jasotzeko lanak hasi dira. Lanek hilabete iraunen dute. Inguruan hobekuntzak eginen dira ere.

Ubelde bazterreko bizilagunekin egindako bileran jasotakoaren ondorioz "hareaz betetako poltsak daude ibai ateratzen den toki guztien ondoan, bizilagunak horrela eskatuta. Gainera, euri jasa iragarria dagoenean uretako hodieta tapak altxatuta uzten dira". Gainera, egoera larria denean, suhiltzaileekin harremanetan jartzen da udala. Planean horiek jasoak egonen dira. Hala ere, alkateak ezinbesteko jotzen du ubeldea garbitzea, "baina konfederazioak horretarako ez du baimenik ematen".



Bizidekarrarekin euskara eroso ikasi daitekeela azaldu dute AEK-koek. ARTXIBOA

## Orain da euskararekin bat egiteko garaia

Euskaltegietan matrikulatzeko azken egunak dira honakoak. Euskara ikasleendako dirulaguntzak daude

SAKANA

Lana bilatzeko. Sentimentala. Burua aktibo mantentzeko. Afektiboa. Euskararen alde egotetik, euskal komunitatearen parte izatera pasatzeko. Euskaraldian parte hartzeko. Bertsolariak ulertzeko. Kantuak abesteko... Makina bat arrazoi daude euskara ikasteko. Eta guztiak dira baliagarriak.

Euskara ikasi nahi duten pertsona helduek horretarako dituzte euskaltegiak. Sakanako AEK-k bere matrikulazio epea asteartean itxiko du. Euskararen ikasketa prozesuari berari buruzko informazioa jaso nahi duenak 948 468 258 telefonora hots egin dezake. Bestela, Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakian dagoen Itsasi euskaltegitik pasa daiteke, 09:30etik 14:00era edota 16:00etatik 19:30era. Beste aukera da [sakana@aei.eus](mailto:sakana@aei.eus) e-posta helbidera idaztea.

**Sakandar berriendako ikastaroa**

Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak oinarrizko euskara ikastaroa antolatu dute. Ibarrean bizi eta euskararekin harremanik ez duten sakandar berriei zuzenduta dago ikastaroa. Haren helburua da ikasleek euskararen eta euskal kulturaren oinarrizko ezagutza lortzea. Ikastaroa lastailaren 13tik otsailaren 21ra izanen da, astelehen eta asteazkenetan, 9:30etik 11:30era (moldagarria), Lakuntzan. 60 orduko ikastaroa da, doakoa, AEK-k emanen duena. Plaza mugatuak dira eta interesa duenak [anitzartean@sakana-mank.eus](mailto:anitzartean@sakana-mank.eus) e-postaren bidez edo Euskara Zerbitzuan 948 464 840 telefono zenbaki edo [euskara2@sakana-mank.eus](mailto:euskara2@sakana-mank.eus) helbidearen bidez egin dezake izen ematea. Azken bi horietan euskara ikasle guztiek dirulaguntzen berri jaso dezakete ere.

EGUN ON SAKANA



**GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00**

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK  
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK

10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA

10:15 BATETI BESTIA

10:20 EGUNEKO ALBISTEAK

10:45 HIZKETAN

11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN

11:55 AGURRA

**107.3 FM**

beleixe

ONLINE WWW.GUAIXE.EUS



Parte hartzaile guztiek saria jaso ondoren talde argazkia egin zuten.

## Zurrumurruen kontrako kontakizun sorta

Olatzagutiko kultur etxean banatu zituen Anitzartean kulturartekotasunen zerbitzuak II. Zurrumurruen kontrako ipuin laburren lehiaketako sariak. Zerbitzuak "zurrumurrurik gabeko Sakana berri baten eszena tokia amestea" eskatu zien parte hartzaileei

### OLATZAGUTIA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak "urteak daramatzagu kulturen arteko elkarbizitza lantzen. Zurrumurrurik gabeko Sakana berri baten eskenatokia amesten dugu. Bide horretan jabetu gara zurrumurruek, estereotipoek eta aurreiritziek zenbateko kaltea sortzen duten

elkarbizitzan eta ipuin laburren bidez hausnartzeko gonbidapena egin dugu". Hala azaldu ditu Begoña Zestau Barailbar teknikariak Zurrumurruen kontrako ipuin laburren lehiaketaren nondik norakoak.

Horregatik, lehiaketako epai mahaiak aurkeztutako ipuinak baloratzerako garaian izan ditu "zerbitzuaren aniztasuna, ber-

dintasuna, errespetua eta diskriminazio eza baloreak" islatuak izatea. Baita gizon-ema-kumezkoen arteko berdintasuna eta zurrumurruetatik libre den eszena toki bat marraztu duten ipuinak ere. Jakina, kontakizunaren balioa bera ere kontutan hartu du. Guztira 17 lan aurkeztu dira lehiaketara, "maila baikorra izan da" jaki-

narazi du Zestauk. Euskarazko 16 urtetik gorako mailan ez zen lanik aurkeztu eta, horregatik, 16 urtetik beherako mailan bost aipamen berezi banatzea erabaki zuen epai-mahaiak. Saritu guztiek ere Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE) emandako txartel bana jaso zuten, elkarteak establezimenduetan gastatzeko.

Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua heldu den urteko edizioan pentsatzen hasi da dagoeneko. Apika, lehiaketaren data aldatzea aztertzen

ari da, orain arte garagartza-roan deitu baita. Baina horren berri aurrerago eman du. Zestauk aurreratu duenez, lehiaketara aurkeztutako ipuinekin etorkizunean bilduma argitaratzeko asmoa dute. Sari banaketan, SDOZEren izenean Pako Aldasoro egon zen. Han ziren ere Anitzartean batzordeko Maria Saez de Albeniz Bregaña eta Olatzagutiko alkate Joseba Vizuite Askargorta. Bestalde, lehiaketa Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako zuzendaritzak diruz lagundu du.

## Senegaldarrek Magal handia ospakizuna aurreratu dute

Cheik Ahmadou Bamba gidak Gabonen, behartuta, deserriko egonaldia hasi zuela gogorarazten dute

### ALTSASU

Jainkoan eta bere Mahoma profetan sinisten dute, "baina Cheik Ahmadou Bamba (1853-1927) muridismoaren gidaria da gu gidatzen gaituena". Muridismoa islamiar ordena sufia da, Sene-

galen eta Gambian zabaldua dagoena. Muridismoan eragin handia du Afrikako kulturak eta, bereziki, wolof herriarenak.

Musulmanen safar hilabetearen 18an ospatzen da Magal handia festa (irailaren 26a). Baina Sa-

kanako senegaldarrak sorterrian ez daudenez, ezin izanen dutenez ospatu, bilkura egin zuten larunbatean. Altsasuko udaletxe parean egon ziren kantuan, gidariaren argazkiak eskutan zituztela. Bilkura Touba Sakana elkarteak deitu zuen. Egun horrekin, Senegalen "korana irakurtzen dute. Jatekoa ematen zaio mundu guztiari. Eta barkamena eskatzen da" esan du Faluk. Ospakizunetan beti kantariak izaten direla azaldu du. Horregatik, Altsasun bildutakoak kantari aritu ziren.



Elkartea duela bost urte sortu zuten. 2022an festa egoki ospatzea espero dute.

## Sarituak

### Euskara

**16 urtetik gorako maila**  
Hutsik gelditu zen.

### 16 urtetik berako maila

1. **Julen Larraza Salinas.** *Barrukoa garrantzitsuena da.* 100 euro.
2. **Sanna Essobai.** *Egun txarra.* 75. euro.
3. **Alain Gurmindo Gabari.** *Sagula.* 50 euro.

### Aipamen bereziak

1. **Nadiri Ezzekraoui.** *Egun gogorra.* 40 euro.
2. **Enaitz Aguado Sanz.** *Arratsalde eguzkitsua.* 40 euro.
3. **Brayan Exposito Oraa.** *Pepita.* 40 euro.
4. **Hodei Audikana Olaiz.** *Egun eguzkitsua.* 35 euro.
5. **Gaizka Flores Martin.** *Pello Martinez.* 35 euro.

### Gaztelania

**16 urtetik gorako maila**

1. **Jose Crespo Larraza.** *Del diario acontecer en un portal de viviendas.* 200 euro.
2. **Izaskun Salinas.** *Reina o rey.* 150 euro.
3. **Essaida Essobai.** *Salma.* 100 euro.

### 16 urtetik beherakoak

1. **Aiora Larraza Salinas.** *Cucurucho de helado.* 100 euro.
2. **Iker Eskudero Gomez.** *Nuevas vidas.* 75 euro.
3. **Oussama Missaoui**  
**Oualalit.** *El señor Sailer.* 50 euro.



**“Irakurri**

**duzu?!”**

**Zu ere harrituko zara, edo ez.  
Poztu, edo haserretu. Baina ziur  
baduzula interesa eta zeresana.  
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.  
Giroan zabiltzalako.**

**berria**

**zuk badakizulako**

## Etenik gabeko bidaia ugariren zergatia ulertzeko

Horixe azaldu nahi du Irurtzungo plazan dagoen erakusketak, foru administrazioak jarri duenak

IRURTZUN

Pellot kortsario hendaiarra, Elkano itsasgizon getariarra, literaturako Ahab kapitaina... Baina ez, GUAIXEko argazkilaria han zela, pateraz jabetutako haurrek Titanic aipatu zuten.

Baita ongi aipatu ere. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Irurtzunen lehorreratu duen pateraren moduko mordo bat urperatu dira Mediterraneo itsasoan, Atlantiko ozeanoan. Europara bidean Bidasoan ere izan da trajediarik.

Urperatzeek hildakoak eragin dituzte, bizimodu hobe baten bila zebiltzan pertsonenak. Heriotza horiek mina eta dolua sortu dute makina bat familia eta lagunaren artean. Onik atera ziren bidaideen artean betirako arrastoa utzi dute. Hala ere, migratzeko arrazoiak bere horretan segitzen dute: gerrak, sexu izaeragatiko jazarpena, klima aldaketaren ondorioak, gatazka politikoak edota ekonomia krisia. Hainbat dira pertsonak etxea uztera behartzen dituzten arrazoiak.



Larunbatera arte dago erakusketa Irurtzungo plazan.



Haurrak eta gurasoak erraldoiak dantzan ikusten. ARTXIBOA

## Haurren gehiegizko pisuaren kontra egiten

Altsasuko osasun etxeko pediatria sailak eta Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuak elkarrekin 'Bizimodu osasuntsua erakutsi' nahi diete haur eta gaztetxoei. Pandemiak ariketa fisikoaren falta eragin du, edo gutxitu du

ALTSASU

Altsasuko osasun etxeko pediatria Sandra Gurutzarri Pellejerok eta pediatriako erizain M<sup>a</sup> Jesus Azkaratek kontsultetan gero eta obesitate arazo gehiago atzeman zituzten. Horregatik, Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuarekin harremanetan jarri ziren, arazoari elkarrekin aurre egiteko. Pediatriako profesionalak pro-

posatu zuten egitasmoa sortzea hiru helbururekin: jarduera fisikoarekiko atxikimendua sortzea, elikatzeke jarraibide egokiak eta gurasoen inplikazioa helburuak lortzeko.

Horiek guztiak kontutan hartuta, "jarduera fisiko ludiko bat antolatu da, fisikoki eta mentalki parte hartzaileendako egokia dena. Jarduera horren edukia,

nagusiki, lehiarik gabeko taldeko jolasak eta kirolaren hastapenak izango dira", azaldu dute Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuko teknikari Sara Salazarrek eta Alfonso Nuñezek.

**Bidea**

Proiektuak dagoeneko bospasei urte ditu. Salazarrek azaldu duenez, "pediatrik 7 eta 11 urte ar-

teko haurren altuera, pisua, gorputz masaren indizea eta beste baloratzeko dituzte. Eta, horrekin batera, elikaduraren eta jarduera fisikoaren kontrola gomendatzen duten balioen zerrrenda egiten du". Pediatrian gehiegizko pisua duten familiek lan egiten dute, dieta osasungarriaren garrantzia azpimarratuz. Hau da, denetarik jan behar dela, fruta eta barazki ugari eta gantz eta azukre gutxiago.

Baina guztia ez da pediatria kontsultan bukatzen. Nuñezek esan duenez, "funtsezko helburuen artean dago haur eta gaztetxoen jarduera fisikoarekiko atxikimendua sortzea eta haren praktika erregularrak egitea". Horregatik, "jarduera fisiko guttiz ludikoen programa bat dugu, lehiarik gabekoa eta kirolaren hastapeneko" gaineratu du Nuñezek. Salazarrek azaldu duenez, "jarduera fisikoaren helburu nagusia haurrek esperientzia positiboa izatea da, praktikatzeko jarrai dezaten". Izan ere, handik haurrak kirol eskoletara bide-

ratzea da helburua, beti ere, txikien gustuko kirola kontuan hartuta.

Haurrekin hasi zen programa (multiekintza), baina pediatriako profesionalak ezinbestekoa jo zuten segida ematea, eta gaztetxoen taldea sortu zuten (gazteerronka). 2019/2020 ikasturtean izan zen hori. 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago. "Adin horretan ez dute ezer egin nahi da eta Zelandi kiroldegiko eskaintza haiendako egokitzen dugu", azaldu du Salazarrek. Programa ez da talde horietara mugatzen, Nuñezek jakinarazi duenez, "zeharka, bizimodu eta elikadura osasungarriari buruzko gaiak herriko kirol eskola guztietan lantzen ditugu taldeekin". Jarduerak lastailean hasiko dira eta izena emateko Zelandi kiroldegitik pasa beharko dute irailean.

### Gazte erronka

12 eta 15 urtekoei (2006-2009) zuzenduta dago eta entrenamenduak Zelandi pilotalekuan egingo dira astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara. Saioen edukiak askotarikoak dira, jarduera erakargarria izan dadin: entrenamendu funtzionaleko saioak, indar orokorreko zirkuituak autokargarekin, body pump, body combact haurrendako (ariketak musikaren erritmoan), kirol alternatiboak (ibilaldiak, bizikletak) eta igerileku estalian uretako jarduerak egiteko (jolasak, igeriketa, acuagym).

### Multiekintza

7 eta 11 urte artekoen (2010-2014) taldea astelehen eta asteazkenetan entrenatzen da kiroldegian, 17:00etatik 18:00etara. Jarduera aerobikoak egiten dituzte, lehiarik gabeko jokoan bidez. Eta parte hartzaileen interesak eta lehenetsunak kontuan hartuta. Saioetan, kirol eskolekin zerikusia duten jarduerak ere egiten dira, Altsasuko kirol eskoletako kirolak ezagutu ditzaten.



# Lehentasunak: hirigintza plana eta estalpea

Ikasturte honetan Altsasuko Udalak hirigintza planean aurrera pausoak ematea du helburu. Horrekin batera, toki publiko batean estalpe bat jartzeko aurten ideia zehaztu nahi du udalak, heldu den urtean haren proiektua idatzi eta lanak egiteko

## ALTSASU

Altsasuko alkate Javier Olo Martinez ikasturteko lehentasunez galdetuta, azaldu duenez, "legegintza honetan eta hurrengoan udalak lan egin beharko du hirigintza plan berrian. Dagoeneko lehen faseak egin ditugu eta hurrengo hirigintza planaren fase garrantzitsuena da, udal hirigintza plana deitzen dena. Etxebizitzak egiteko eskaera handia bada, Altsasu norantz handitu nahi dugun zehaztu behar da. Zer sistemaren bitartez. Eta industria ezartzeko zein toki aurreikusten dugun".

Alkateak gaztigatu duenez, "Altsasuk arazo handia du, industriaguneak ditugu, baina edozein enpresa etorri eta ezartzeko ez du industria lurrik". Planaren hurrengo fasean orain arte zirriborratutakoa zehatz jaso behar da. Etxebizitzetarako Arkangoa eta Mendizabalazpi aurreikusiak daude. Eta industrialderako Kapitansoro dermioa. Ollok azaldu duenez, "orain dugun planak izugarritzko arazoak sortu ditu bai udalean baita altsasuar ugariri. Beste momentu batean onartu zen, 2002an. Eta ez gaude egoera hartan".

Horrekin batera, Ollok beste lehentasun bat nabarmendu du, estalpea. "Gure helburua da hel-



Altsasuko ikuspegia elizako kanpai dorretik. ARTXIBOA

du den urtean, behingoz, Altsasuk estalpean egoteko espazio publiko bat izatea". Alkateak gaztigatu duenez, "aurten ideia lehiaketa egin nahi dugu. Horren eta parte hartze prozesu baten bitartez, ideia izanda, heldu den urtean proiektua eta inbertsioa egin nahi ditugu". Udalak horretarako laguntza lortu nahi du.

## Inbertsioak

Urtea bukatu bitartean hainbat inbertsio egingen ditu Altsasuko Udalak. Alkateak azpimarratu dituen artean daude, alde ba-

tetik, Gartzia Ximenez kalean (Zubeztia kaleko bidegurutzetik udaletxe pareko lorategi parearaino) espaloia eta kalea altuera berean jarriko duen lana, ondorioz ibilgailuek eta oinezkoek espazioa partekatuko dute. "Alde Zaharra eta erdigunea lotzea da helburua. Baita dendariei bultzada txiki bat ematea ere. Lehen denden gunea Gartzia Ximenez kalea bazen, orain ia gabe gelditu da eta gaur egun dendak, batez ere, erdigunean daude. Kale tarte horri bultzada eman nahi diogu ere". Etorkizunean eragi-

na izanen du lan horrek. Segur aski asteburuetan kale tarte hori oinezkoendako izanen da bakarririk" azaldu du alkateak.

Bestetik, Ollok nabarmendu du Ibarrea industrialdeko ur zikinak jasotzeko sarea egiteko lanak aurten despedituko dituztela. Lanen hirugarren fasea da eta aurreko bietan jarritako hodiak lotzean datza. Horretarako, trenbide azpitik pasarazi beharko dute hodia. "Oso obra konplexua da" gaineratu du Ollok. Bestetik, gogorazi du Zelandi eskola publikoko patioan euri urak egoki hartzeko lanak aurki despedituko direla.

## Udaletxea

Udalak bere artxiboari espazio egokia eman nahi dio udaletxean. "Momentu honetan duguna azken pisuan dago. Nahiz eta gaur egun guztia informatizatuta egon eta hainbeste paper ez sortu, ia ez dago tokirik. Artxibo berria behar dugu, eta beheko pisuan egon behar du. Atzeko partetik handituko genuke udaletxea eta bertan artxiboa jarriko genuke. Eta inbertsioa udaletxeari buelta bat emateko baliatuko genuke" esan du alkateak.

Azken horren inguruan Ollok azaldu duenez, "eraikinean puntu asko daude momentu honetan inongo erabilerrak ez dutenak. Talde politikoen bulegoen inguruan hausnarketa egin beharko dugu, non jarri. Azkenean ez dira hainbeste erabiltzen". Alkateari gustatuko litzaioke artxiboa dagoen tokian talde politikoen bulegoak egotea eta haien tokian beste zerbitzu batzuk jartzea. Azaldu duenez, artxiboarekin udaletxea atzeraka handitzen bada ere, gero eraikina goraka jasotzeko aukeraz galdetuta, alkateak esan duenez,

"momentuz, honetan ez da gure ideia". Ollok gogorazi du aurretik komunak berritu, igogailua jarri eta teilatua berritu ditzutela.

## Ospakizunez

Bigarren urtez jarraian Altsasuko Udalak bertan behera utzi zituen festak COVID-19agatik. Festak beharko luketen garaian "herri guztietan bezala, neurriak bete eta bete ez dituzten pertsonak daude. Adin guztietako pertsonak, askotan fokua gazteengan jartzen baitugu bakarrik. Neurriak ez betetzearen ondorioak ez izatea espero dezagun". Alkateak gaineratu duenez, "niri gustatu ez zaizkidan portaera oso txarrak egon dira. Esaterako, Gure Etxea eraikinean sartu eta bertan edanean egotea".

Alkateak jakinarazi duenez, nahiz eta pandemiak ekarritako osasun arauak aldatu, aurtengo feriak bertan behera utzi dira. Aurreratu duenez, "nekazaritza eta abeltzaintza produktuen azoka egin nahi dugu. Ez da ferien asteburuan izanen, beste batean baizik. Alkatea 2022ko ospakizunei begira jarri da: "hor ditugu Santa Ageda eta inauterriak. Espero dugu modu batera edo bestera egitea. Ez dakit lehen bizi genituen bezala izanen den, baina, bai, pixkanaka bestelako modu batean egitea. Beti ere kintoekin adostuta". Gogorazi du 2020an kinto ospakizunak ez zirenez egin urte bat atzeratu zirela.

## AURTEN UDALETXE PAREKO KALE ZATIA IBILGAILU ETA OINEZKOENDAKO BIHURTUKO DA

## Bakaikun nolako denda nahi duten zehazteko garaia

Horretarako bilera larunbatean, 11:00etan, egingen da Maldaiko larrainean. Eguraldiak laguntzen ez badu bilkura udaletxean egingen da. Izan ere, Bakaikun dagoen denda bakarrak urtearekin batera itxiko ditu ateak. Eta zerbitzurik gabe ez dute gelditu nahi bakaikuarrek eta, horregatik, haren ordezkia nolakoa izanen den aztertzen hasi dira Bakaikun.

**BiL TOKi**  
TABERNA • JATETXEA

**Eguneko menua 11 €**

**Menu berezia 15 €**

**Telefono berria: 948 562 348 · Altsasu**

**kaxeta**  
LIBURUDENDA

ADLOTSE  
ALKANARRAK  
ALDEAK ERE ZATIA  
ALTSASU ETXEA  
ARRUTIREN BANDA  
ATSEKALDE ZATIA  
ATXARRE BARRIOA  
AZKALDEA

Ikus ezazu gure liburu katalogoa **kaxeta.net-en**

fotokopia@kaxeta.net  
628 542 519 | 948 460 477

**PORTUKO**  
okidengia

Aurretik eskatzeko aukera!

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988



Zuhatzu eta Etxeberriko ikuspegia.

## Garapenerako Proiektuetarako laguntzen deialdia zabalik

Garalurrek 2014-2020 aldiko Landa Garapenerako Proiektuetarako laguntzen azken deialdia ireki du

### SAKANA

Cederna Garalur elkarteak jakinarazi duenez, Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 aldiko Landa Garapenerako Proiektuetarako (LGP) toki garapenerako proiektuen bosgarren eta azken deialdia ireki du. Haren bidez Mendialdearen gizarte eta ekonomia garapenean lagunduko duten proiektuak finantzatu nahi ditu, zerbitzu publikoak eta enpresak sortuz eta sendotuz.

Garalurren dirulaguntza jasotzeko, aurkeztutako ekimenek elkartearen honako ardatz estrategikoekin bat egin beharko dute:

herritarrak tokian mantendu eta finkatu; lehen sektorea eta basogintza; natura baliabideen ustiapen jasangarria; zerbitzuak garatu eta ondareari balioa eman eta enpresak finkatzen eta enplegua sortzen lagundu. Aurkezten diren ekoizpen proiektuek %30era arteko finantzaketa muga izanen dute eta %70ekoa ekoizpenekoak ez diren gizarte izararako proiektuek. Bi kasu horietan, laguntzen muga 50.000 eurokoa izanen da. Deialdiak 1.404.358,44 euroko aurrekontua du. Deialdiari buruzko informazioa [www.cederna.eu](http://www.cederna.eu) webgunean.



## Urdalurko ur sarea luzatzen

Urdalurko uharkako ura, gaur egun, Satrustegiraino iristen da. Baina lau hilabete barru Etxarrengo ur biltegiraino iritsiko da. Izan ere, Sakanako Mankomunitateak uraren goi hornidura sarea luzatzeko lanak Lakita enpresari eman dizkio. Duela bi aste hasi ziren lanean. Egitekoa despeditzean 509.000 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu enpresak.

## Presoen etxeratzea eskatzeko Nafarroako Itzulia pasako da

Nafarroako Sarek heldu den asteazkenean, hilaren 29an, Nafarroako Itzulia abiaraziko du. Lau egunez, lastailaren 2ra arte, Lesaka eta Berriozar arteko bidea egingen dute, oinez, gelditu gabe. Sakanara Latasa aldetik iritsiko da, Irurtzunera, ostegunean, 07:00ak aldera. Ibiltari sakandarrak Lizarragara arteko bidea egingen dute, portua igo eta Abartzuza aldera joko baitu martxak. Sarekoendako "urtetako sufrimendua atzean utzi eta elkarbitza eta bakeari ekarpena egiteko beharrezkoa den urratsa da etxeratze prozesua". Sarek gaineratu duenez, "salbuespen politika urratzaile horrekin bukatzeko bidean gaude".

## Sortuk Txiki eta Otaegi oroituko ditu astelehenean

1975eko irailaren 27an fusilatu zituzten Juan Paredes Manot eta Angel Otaegi Etxeberria ETAKo kideak. Ezker abertzaleak egun hori Gudari Eguna izendatu zuen, eta astelehenean, 19:00etan, Urdiain eta Altsasuko San Pedro zelaian oroimen ekitaldia egingen du Sakanako Sortuk, *Euskal Herria bihotzean, independentzia!* lelopean. Sortuk adierazi nahi du "gure herriarekiko maitasunak ezinbesteko sugarra izaten segitzen duelako askapen borrokan aurrera egiteko. Eta independentzia, noski, Euskal Herriaren etorkizuna ezinbestean, hortik pasatzen delako eta horrek jarraitzen duelako izaten gure eskaintza euskal jendarteari".

## Genero indarkeriari aurre egiteko dirulaguntza

Genero indarkeriaren kontrako Estatu Itunetik Nafarroako udalerriek 946.074,45 euro jaso dituzte. Eta kopuru horren %5,49, 51.950,52 euro, Sakanara iritsi dira. Altsasuko Udalaren Berdintasun Zerbitzuak 13.444,88 euro jasoko ditu. Ibarreko gai-nontzeko 14 udalerriek bere eskumenak Sakanako Mankomunitatearen esku utzi zituzten eta haien bidez Sakanako Berdintasun Zerbitzuak 38.505,64 euro jasoko ditu. Ibarreko bi berdintasun zerbitzuek elkarrekin hainbat proiektu egin dituzte, eta koordinatuta lan egiten dute. Horren emaitzetako bat [www.jarain.app](http://www.jarain.app) webgunea eta telefono mugikorretarako aplikazioa dira.

Ordainketa, ohi bezala, udalei beraiei egin zaie, aldeztu aurretik eskatu beharrik gabe. Funtsak proiektu edo programak egiteko erabiliko dituzte Berdintasun Zerbitzuek. Honako jarduerak egin ditzakete, besteak beste: sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak eta informazio eta hedapen materialak egitea; tokiko erakundeekin erantzuna hobetzeko lankidetzak eta koordinazio tresnak sustatzea; herriarrei nola jokatu behar den jakinarazteko puntuak ezartzea edo biktimei arreta eta informazioa emateko zerbitzuak indartzea.

## DUELA 25 URTE...



## Murginduetako hilerria desagertuta

Sakanako azken herri despokatua Ihabar eta Irañeta artean dago: Murgindueta. Nekazari batek hango zelaiak erosi zituen eta, antza, hilerria oztupoa zen. Eta hondeamakina baten laguntzaz hilerria kendu zuen. Han lurperatuta zeuden senideak berehala mobilizatu ziren eta haien senideekiko errespetua exijitu zuten. Arakilgo Udalak esan zuenez, kanpo santua berregin egingen zuten.



Arkeologoa harrobian, Koskobilo I lezearen ahoa zegoen tokia adierazten. ARTXIBOA

## Araztegia berritzeko lanak udaberrian hasiko dira

Arkeologia aztarnategia opatzeak araztegia berritzeko eta harrobia lehengoratzeko proiektuei eragin die

### OLATZAGUTIA

Olatzagutiko etxeetako eta enpresetako ur zikinak garbitzeko araztegia bere ahalmena gaintzetik gertu dago. Horren jakitun, Nilsa enpresa publikoak ur araztegi berria egiteko proiektua egin zuen. Aurreikusitakoaren arabera, egungoaren espazioa eta Orna iturri aldera dagoen beste eremu bat erabili behar zuten horretarako. Baina handik gertu Koskobilo II arkeologia aztarnategia opatu dute, eta hura babesteko zehaztu den babes eremuaren barruan sartzen da ur araztegia handitzeko aurreikusia zuten lur zatia.

Joseba Vizuete Askargorta Olatzagutiko alkateak azaldu duenez, "Nilsak proiektua aldatu du eta, ondorioz, ur araztegia dagoen tokian bertan berria egingen du. Nilsakoek esan digutenez, lanak otsailean edo martxoan hasiko omen dira". Gaur

egungo ur araztegia 1991eko da eta hura berritzeko Nilsak bi milioi euroko aurrekontua zuen proiektua egin zuen.

Kobazuloko arkeologia aurkuntzak Koskobilo harrobiari ere eragiten dio, lezearen babes eremuaren barruan baitago. Cementos Portland Valderrivas enpresak harrobia zaharbertzeko plana aurkeztu zuen joan den urte akaberan. Han jasotakoaren arabera, paisaia integrazioa lortzeko, besteak beste, enpresak harrobiko paretarik bertikalen kontra materiala botatzea proposatu zuen. 100.000 metro kubiko bost urtetan.

Olatzagutiko alkateak jakinarazi duenez, "aurkeztutako planarekin udala ez zegoen oso ados. Eta arkeologia aztarnak agertu direnez, Nafarroako Gobernuak esan du enpresak errestiturazio plan berria aurkeztu behar duela".

## Estatu kolpearen ondoren 70 eraildako izan ziren Sakanan

Nafarroako Unibertsitate Publiko Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsak *Gerra Zibilean eta lehen frankismoan (1936-1948) Nafarroan izandako errepresioaren biktimak hilkorren zentsua* ikerketa egin du. Txosten horretan 1936 eta 1948 artean Nafarroan izandako errepresioari buruzko zifrak eguneratu dituzte.

Ondorioz, gaur egun funtsaren datu basean 3.507 biktima daude erregistratuta, garai horretan errepresio frankistak hildakoak. Nafarroan eraildakoen artean 70 sakandar (%1,99) daude. Herrietako eraildakoen eta mila biztanleko tasari erreparatuta, eraildako gehien izan zuen herria Olatzagutia izan zen, 11,89 (20 eraildako). Atzetik honako udalerrriak ditu: Altsasu 8,39 (28), Ziordia 6,01 (3), Etxarri 6 (9), Arbizu 4,91 (4), Uhartea 3,87 (3), Bakaiku 2,46 (1), Lakuntza 1,55 (1) eta Arakil 0,46 (1).

## Kaleetako sareak eta zorua berritzeko lanak aurreratuta daude

Hiru kaleetako sareak eta zorua berrituko dituzte azarorako. Hurrengo fase batean 3 kale berrituko dira

### ZIORDIA

Dona Luzia kaleko 21 eta 58 zenbakien artean makinak lanean dira agorrila akaberatik. Hango sareak eta zorua berritzeaz Erki eraikuntza enpresa arduratzen ari da. Eta hango lanak despeditu ondoren, Dona Maria kalearen 9 eta 29 zenbakien artean eta Miraria kalearen 12 eta 16 zenbakien artean egingen dira lan horiek. Ziordiko Udalak lanak horrela egitea erabaki zuen irailaren 4an herrian jokatu zen txirrindulari lasterketaren ibilbidea ez eragozteko.



Dona Luzia kaleko lanak.

Olatz Irizar Martinez alkateak jakinarazi duenez, lanak azarorako despedituko dituzte. "Proiektuaren aurrekontua 400.000 eurokoa da, eta Erki 322.000 eurotan egiteko konpromisoa hartu du. Lanak finantzatzeko Nafarroako Gobernutik 175.000 euro jasoko ditugu". Foru administrazioaren aurrekontuen negoziazioan EH Bilduren emendakina onartu ondoren lortu zen finantzaketa hori.

Alkateak azaldu duenez, "kale gehien berritzea bukatzeko bi fase handi eta esku hartze txiki batzuk falta dira. Lan hauek bi fase horietako lehenekoak dira". Hurrengo fasean daude Dona Luzia kaleko 6. zenbakitik 18ra eta handik 40 arteko kale zatia eta Mirari kalea (1 eta 5 artean) eta haiei perpendikularra den Texeria (25 eta 27-A zenbakiak).

Sormen tailer honetan liburu bat egiten ikasiko dugu modu dibertigarri batean

*Sormen tailerra*

**LIBURU BAT EGINCO DUGU**

Adin tartea: 8-12 URTE BITARTE

Data: URRIAREN SEAN | Ordutegia: 17:00 ETATIK 18:30 ERA

Tokia: ZIORDIKO LIBURUTEGIAN

Izen-ematea: Tokiak mugatuak dira. Horregatik aldeztu aurretik izena eman behar da [ziordialib@cederna.es](mailto:ziordialib@cederna.es) helbidean

antolatzaileak

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA Mank sakanan

**Erkuden Ruiz Barroso** SAKANA

Topagunearen helburu estrategikoetako bat da etorkizunean Nafarroako biztanleriaren gehiengo euskararen indarberritze prozesuaren alde egotea. Hori gogoan antolatu du jardunaldia. **Zergatik antolatu duzue jardunaldia?** Bereziki hiru atal begiratzen dira soziolinguistika inkestetan. Ezagutza eta erabilera datuak eta euskararen erabilera sustatzeko jarrerak. Euskaltzaleen Topagunea beti egon da erabile- ra sustatzeko proiektuetan. Nafarroan euskararen sustapenaren kontrako jarrerak oso-oso kezagarriak dira, inkestaz inkesta errepikatzen dira. %39,1 kontra daude eta %27,6 ez alde ez kontra. Bai, nafarren heren bat euskara sustatzearen alde gaude. Baina gehiengo soziala izatetik urrun gaude. Uste dugu unea dela fokua hor jartzeko; horri buelta eman nahian, etorkizunean euskararen sustapenaren alde gizartearen gehiengo egon dadin.

**Jarrerak indartu beharra badago, ahul daudenaren seinale. Zergatiak aztertu dituzue?**

Asko daude. Gonbidatu ditugun hizlariak, hain zuzen ere, horren inguruan ibili diren pertsonak dira, eta beraien iritzia jasotzea asko interesatzen zaigu. Hainbat ertzetatik begiratuko dute. Eta, jakina, irtenbideak bilatu nahian, guk geuk ere aztertu ditugu zergatiak. Argi dago euskararen ezagutza urriagoa den lekuetan nabarmen-nabarmen dagoela kontrako jarrera. Hori da ikusten dugun auzi inportanteetako bat: euskara ezagutzen ez duen pertsonak, hezkuntzaren bitartez inoiz inolako kontakturik izan ez dutenak, eremu horretan kontraktotasun zerbakiak askoz handiagoak dira, %59,1. Hor arazo handietako bat dago: euskaratik urrun bizi diren edo biziaraiz dituzten pertsonak, inolako aukerarik izan ez dutelako euskara ezagutzeko, entzuteko, ikusteko... hezkuntzaren bitartez.

Arazo handi hori konpontzeko politika arloko neurriak behar dira. Gaur egun hori sustatzearen aldeko politika gehiengorik ez dago Nafarroan. Garbi dago hauteskunde kalkulak ere badaudela: oraindik alderdi batzuek errentagarri ikusten dute euskararen sustapenaren kontra agertzea, inolako sustapen neurririk hartu gabe aritu nahi dutenak. Pen-



Oskar Zapata Solano, Nafarroako Euskaltzaleen Topaguneko ordezkaria. UTZITAKOA

# "Euskararen aldeko gehiengo soziala eraiki nahi dugu"

**OSKAR ZAPATA SOLANO** NAFARROAKO EUSKALTZALEEN TOPAGUNeko ARDURADUNA Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta Iruñeko Kondestable jauregiak 'Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak' jardunaldia hartuko du lastailaren 14an

tsatzen dute halako jarrerekin botoak irabazten dituztela.

Badaude politikoagoak eta sozialagoak diren gaiak. Nafarroan dagoen identitateen talka. Politika proiektuen artekoa, Espainia eta Euskal Herria, nolabait esatearren. Bi Nafarroak iraunarazteko tentaldia dago. Eta, garbi, Nafarroan bizikidetzaren kontrako neurria da. Ezin baita elkarbizitza ulertu bestearren ukaziotik, baizik eta, nolabait, komunitateen integrazioetik pentsatua.

Sozialagoa den beste alde bat ere badago. Aspalditik lan arloan mehatxua sentitzen duten batzuk. Etorri berriak D edo A ereduaren bidez eskolatu beharrean gobernuaren aldetik egiten den oso ahalegin handia, batez ere, G ereduaren integrazteko. Horrek sortzen dituen bestelako ajeekin: D ereduaren bertan, baina desberdinekiko distantzia. Biktimismoa gure aldetik, desberdinak direnak askoz okerrago bizi direnean... Hainbat gai gatazkatsu daude.

**Euskaldunok jarrera batzuekin, edota euskara ez hitz eginez, oztopoak jartzen ditugu, ezta?**

Bai. Kritika eta autokritika egin behar dugu denok. Guk geuk gai batzuk errebisatu beharra baditugu. Batez ere desberdinekiko dagoen distantzia hori. Desberdinen arteko aliantzak nola landu, dauden bestelako gizarte eta politika eragileak, ez alde ez kontra, neutroago aritzen direnak; ez dakigu nola jokatu, nola hurbildu haiengana. Gure ajeen artean halakoak baditugu. Kon-

traktotasun hori sustatu nahi duten horiek beraien diskurtso markoan, beraien agendan, jartzen gaituzte. Argi dago askotan gure diskurtsoak, gure ekimenak markatzen dutela. Hainbat gai daude.

**Zer bilatu nahi duzue jardunaldiekin?**

Euskararen indarberritze prozesuaren alde egoteko aliantzak, eraginak, praktikak eta diskurtso eredugarriak. Hizlari bakoi-tzak gai batean zentratuta bere azterketa egin du, eta haiek ekarriko dituzte, gogoetak egin ditzagun. Esaterako, erdalduz euskaltzaleen aurreiritziak eta zein diren aztertu ditu Xabier Erize soziolinguistak. Eusko Ikaskuntzaren azken ikerketan elkarbizitzarekin eta aniztasunaren kudeaketa demokratikoarekin lotuta hainbat kontu agertu ziren. Amaia Nausiak jarriko ditu mahai gainean. Ikus dezagun hondoan dauden bestelako diskurtsoak eta praktikak, behar bada egunerokotasunean kontuan hartzen ez ditugunak, eta jakitea komeni zaizkigunak. Komeni zaigu jakitea kontra eta ez alde eta ez kontra dauden horiek ere zer pentsatzen duten. Azken batean, gehiengo sozialak eraiki nahi ditugu. Euskararen sustapenaren alde erabaki irmoak hartzen direnean atzera ezinak bilaka daitezten. Ez dadila joko alderdikoien baitan orain kendu, orain eman eta abar. Guztion lana da gehiengo sozialak eraikitzea. Nafar guztion lana da ikustea Nafarroa modu integratuagoan ulertzeko eta balore positiboetan oinarritutako herritarren arteko bizikidetzaz lantzeko aukera. Hori beti integrazioetik ulertuta izanen da. Inoiz ez komunitate baten ukaziotik. **Irizpide horiek dituztelako gonbidatu dituzue lau hedabideetako zuzendariak?**

Bai. Batetik, nahi genuen komunikazio estrategietan hainbat gako teoriko ekartzea. Pilar Kartzadak ekarriko du hori. Euskararen komunikazio estrategia-rako gako batzuk. Bestetik, gizartearen behatzaile diren heinean, jakin nahi genuen hedabideetako hainbat zuzendarik (Diario de Noticias, Ser, Gara eta Euskalerrria Irratia) nola ikusten duten komunikabideen papera halako indarberritze prozesu batean aldekotasun jarrerak hobetzeko. Eta, behatzaile diren heinean, interesatzen zaigu asko

gizartean nola ikusten duten euskararen gaia eta zein proposamen egin ditzaketen aldekotasuna indartzeko.

**Euskalgintza mugimendu feminis-tari begira dago. Eta jardunaldietan izanen da.**

Asko du ikasteko mugimendu feministatik. Gizartean ematen ari diren pauso positibo guztiak, edo gehienak, beraien ekarpena dira. Zer ikasi eta nori begira badugu. Proposatu genienean, berehala onartu zuten. Beraiek ere ikusten dutelako badaudela hor sinergiak lantzeko, badaudela gizarte mugimenduen artean halako paralelismoak. Mugimendu feministak pauso asko egin ditu, ez dakit euskararen eraberritze mugimendura ekarri daitezkeen edo ez, baina hortik zer ikasi badugu. Ezinbestekoa zen haren presentzia. Gainera, gizarte mugimenduekin, oro har, aliantzak edo elkar ezagutzeko ahalegin gehiago egin nahi ditugu, behintzat Euskaltzaleen Topagunetik. Elkar ezagutzeko, elkar entzuteko, ikusteko zein aukera egon daitezkeen aurrerapausoak emateko elkarrekin.

**Gazteak etorkizuna dira, eta jardunaldietara gonbidatu dituzue.**

Entzuten da, eta inkestetan hasi da nolabait agertzen, zenbat eta gazteagoa izan orduan eta euskararekiko kontrakotasun gutxiago dago. Badirudi normala go izusten dela, indarberritze prozesua balore positiboekin lotzen dute, kultur eta gizarte aberastasuna, integratzeko aukera... Horregatik, oso inportantea iruditu zitzaigun haien ahotsak ekartzea. Gainera, geografikoki, begirada desberdinak ekarriko dituzte: Erribera, Iruñea, Pirinioak... Entzun eta ikasteko. **Guztia etorkizunean nafar gehiago euskararen indarberritze prozesuarekin enpatiko izateko.**

**'TOPAGUNEA.EUS'  
WEB ORRIAN EMAN  
DAITEKE IZENA;  
LASTAILAREN 8RA  
ARTE DAGO AUKERA**

**"GOBERNUAN ERE  
IKUSTEN DUTE  
JARREREN GAIAN  
BIDE BERRIAK LANDU  
BEHAR DIRELA"**

Garbi dugu: euskararen aldeko gehiengo soziala eraiki nahi dugu. Iruditzen zaigu garrantzitsua izan dela etorkizunean. Batez ere, ezinbestez indarberritze prozesuan hartu beharreko lege eta sustapen neurriak gizartearen gehiengoak onartuak izateko. Hori eraikitze bidean hainbat gauza egin beharko ditugu. Eta hainbat diskurtso eta praktika berrikusi, egokitu, hobetu beharko ditugu. Eta, batez ere, aliantza berriak batez ere landu beharko ditugu. Hor ere lan egin behar dugu.

**Nafarroako Gobernu jardunaldien babeslea da. Zeren seinale da hori?**

Gai horretan ere interes handia du. Bere euskararen bigarren estrategia planaren zirriborroan atal oso bat eskaini diote. Uste dut adostasun soziala deitzen diotela. Esanen nuke gobernuaren programa akordioan halako zerbait jasoa zegoela. Eta haiek ere ikusten dute jarrean gaian bide berriak jorratu behar direla. Hain zuzen ere, helburu berearekin.

**Harengan ere eragin beharko da?**

Dudarik gabe. Gizarte, politika eta ekonomiako eragile guztiengan eragin behar da. Batzuegan irisgarritasun handiagoa izan dute gizarte mugimenduek. Eta besteengan alderdiek, sindikatuek edo gobernuak.

**Beraz, jardunaldiko hausnarketak norabide guztietan zabalduko dira?**

Hori da gure nahia. Ez da hasiera bat. Gai hori aspaldi dago guztion mahai gainean. Baina iruditu zaigu fokua momentu batean jartzeak laguntzen duela lastailatik aurrera gai horren inguruan lanean segitzeko agente guztiak.

**Nori dago zuzenduta?**

Gizarte osoari. Fokua euskaltzaleengan jarri dugu. Inportantea zen euskaltzaleen artean ditugun aukera horiek elkarrekin hausnartzea. Jardunaldiak itzulpen zerbitzuarekin eginen ditugu; erdalduna izanik ere parte hartzeko aukera dago. Bi mahai inguruak mistoak izanen dira: parte hartzaileek hizkuntza batean edo besteak hitz egiteko aukera izanen dute. Inguruan dauden euskaltzaleen komunitatean kezka dagoela ikusten dugu, eta ireki eta parte hartzeko aukera eman nahi genien. Era guztietako eragileak gonbidatu ditugu. Leku askotan ibiltzen diren eragileak. Euskaltzaleak ez direnak ere.

# EUSKERA

2021-2022  
IKASTURTEA / CURSO

**AHORA**

IKASI ETA MUGITU ZURE MUNDUAI ¡APRENDE Y MUEVE TU MUNDO!

**EUSKARA IKASTEKO TALDEAK SAKANAN (AEK):  
GRUPOS PARA APRENDER EUSKERA EN SAKANA:**

<p><b>Altsasu</b>  <b>Hasiera</b> 09:20-12:00 (1,2,4)  <b>Hasiera</b> 18:00-20:00 (1,2,3,4)  <b>A1</b> 19:00-21:00 (1,2,3,4)  <b>A2</b> 9:00-11:40 (1,2,3)  <b>A2</b> 18:00-20:00 (1,2,3,4)  <b>A2.2</b> 09:20-12:00 (1,2,3)  <b>A2.2-B1</b> 18:00-20:00 (1,2,3,4)  <b>B1</b> 09:20-12:00 (1,2,4)  <b>B2</b> 19:00-21:00 (1,2,3,4)  <b>EGA/C1</b> 17:00-19:00 (1,2,4)  <b>EGA/C1</b> larunbat goizean</p>	<p><b>Etxarri Aranatz</b>  <b>B1.2</b> 15:00-16:30 (1,2,3,4)</p> <p><b>Irurtzun</b>  <b>Hasiera</b> 09:30-11:30 (1,2,4)  <b>Hasiera</b> 18:00-20:00 (1,2,4)  <b>A1</b> 09:30-11:30 (2,3,4)  <b>A2</b> 15:00-16:30 (1,2,3,4)  <b>B2</b> 09:15-12:15 (2,4)</p> <p><b>Autoikaskuntza</b> (maila guztiak)</p>
---	---

Nahi zerukeen maila edo ordutegia zerrندان ez badago, galdetu euskaltegian: 948 468 258  
Si el nivel o el horario deseado no está en la lista, pregunta en el euskaltegi: 948 468 258

**Euskaltegi gehiago/más euskaltegis: [www.elaide.eus](http://www.elaide.eus)**

**Dirulaguntza handiak (%80-%100):  
Sakanako Mankomunitateak,  
Euskarabideak eta zenbait udalek  
Informazio gehiago Euskara  
Zerbitzuan: 948 464 840**

**Mank**  
s a k a n a

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernu

 AGENDA 2030

 euskarabidea

 aek

 ika

 bai&by

 EUI tudela

 EUIP-IHEO

 ZUBIARTE Euskaltegi Publikoak

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 24

**ALTSASU** Gazte agenda: Sexgunea. 17:00etatik 22:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

**EGIARRETA** *Erroak Sakana:* proiektuaren aurkezpena eta *Daroca* erakusketa. 18:00etan, Itsasperi.

**ARRUAZU** *Sakanako ondarea.* Arakil mendebaldeko etxeen izenak historian zehar. Jose Luis Erdozia Mauleonen hitzaldia. 18:00etan, udaletxean.

**LAKUNTZA** *Lakuntzako auskias*

*akordetzen yeiz?* 19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Euskal Herriko neska\* gazteen baterajotzearen aurkezpena. 18:00etan, Gure Etxean.

**ALTSASU** *Sukarrafest* jaialdia: Xuar, Deserrite eta Dentera taldeen kontzertua. 18:00etatik aurrera, Iortia zabalgunean.

**IRURTZUN** *Relatales* fanzinea liburuaren bigarren argitalpenaren aurkezpena. Dekumas LBT taldeak antolatuta. 18:30ean, kultur etxean.

**ALTSASU** Azken ostirala. *Ibilian*

*ibilian presoak eta iheslariak etxera* Sareren elkarretaratzea. 19:30ean, udaletxearen aurrean.

**IRURTZUN, ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Azken ostirala. *Ibilian ibilian presoak eta iheslariak etxera* Sareren elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

## LARUNBATA 25

**OLAZTI** Saray elkartearen azoka solidarioa. Egunean zehar, Memoriaren parkean.

**ALTSASU** Literatur bira: Ivan Hernandezen *Desafecto* eta Marta Fontanaren *La casa de Verges* liburuaren aurkezpena. 12:00etan, Idergi tabernan.

**EGIARRETA** *Erroak Sakana:* Eduka Natura interpretazio gidaren aurkezpena. 11:00etatik 13:00etara, Itxasperin.

**BAKAIKU** Herri dendaren izaera adosteko bilera irekia. 11:00etan, Maldaiko Larrainan edo udaletxean (eguraldiaren arabera).

**ALTSASU** Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena. Ondoren, pintxopotea eta kontzertuak: Ilargi Gorri eta Z-erua eta L'kano. 17:00etatik aurrera, gaztetxean.

**ALTSASU** Gazte agenda: *Ongi etorri* ekimena. 17:00etatik 22:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

**EGIARRETA** *Erroak Sakana:* Estanpazio botanikoko tailerra. 18:00etatik 20:00etara, Itxasperin.

**LAKUNTZA** ETS taldearen kontzertua. Sarrerak agortuta. 19:00etan, pilotalekuan.

**ALTSASU** *Bidexkak Altsasun zehar, hiru mendizerrak eta Basaluze Dorreko maketaren aurkezpena.* Irailaren 26ra, Gure Etxea eraikinean.



**IRURTZUN** *Errefuxiatuak:* bizitzeko ihes egin behar erakusketa. Nafarroako Gobernuak antolatuta. Irailaren 17tik 26ra. Plazan.

**ALTSASU** *Bira Nafarroan Barna* programa: Andrea Santiagoren kontzertua. 19:30ean, Iortia kultur gunean.

**EGIARRETA** *Erroak Sakana:* Guarimba eta Makusai. 20:00etan, Itxasperin.

## IGANDEA 26

**ALTSASU** Gazte agenda: ate irekiak. 17:00etatik 22:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

**EGIARRETA** *Erroak Sakana:* *Daroca* erakusketa. 20:00etan, Itxasperin.

## ASTELEHENA 27

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. 12:00etan, udaletxearen parean.

**ALTSASU** *Euskal Herria bihotzean. Independentzia!* Sortu Sakanaren oroimen ekitaldia. 19:00etan, San Pedron.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

*García y García* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Larunbata 25: 19:30

*Adiós, Idiots* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 30: 19:00

## ASTEAZKENA 29

**ALTSASU** *Nada es diferente después de todo* Txaro Beguénen liburuaren aurkezpena. 18:00etan, liburutegian.

## OSTEGUNA 30

**ETXARRI ARANATZ** *Ibilian-ibilian* etxerako bidean Sareren Nafarroako itzulua pasako da. 13:00etan, herritik.

**LAKUNTZA** *Aittune,* *iluntasunaren beldur naiz* Oihane Anduezenaren liburuaren aurkezpena. 18:00etan, Tximonena jatetxean.

# Bazkide

# Zozketa

## IRAILEKO SARIAK

### 1. SARIA

Itziar Perurena Jaurena (Altsasu)

### 2. eta 3. SARIAK

Erkuden San Martin Gonzalez (Etxarri Aranatz)  
Anuntxi Erdozia Garaikoetxea (Arbizu)  
Mari Jose Lazkoz Markotegi (Bakaiku)



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZAK

**Olaztikoa Erburua kiroldegian larunbatetan atezain-garbitzaile baten bila:** Eskola graduatua eta euskararen ezagutza eskatzen dira. Kontratazio aldia urte baterako da (luzagarria). Aukeraketa prozesuan parte hartzeko eskaerak Altsasuko emplegu bulegoan, Erburua Kiroldegian edo Olaztikoa Udaletxean aurkeztu ahaliko dira irailaren 29a bitarte. Informazio gehiago [www.olazti.com](http://www.olazti.com) weborrian edo Olaztikoa Udaletxean.

**Liburuzain eta Kultur kudeaketako laguntzako lanpostua betetzeko oposizio lehiaketa Arbizun:** C mailako lanpostua eta euskara ezagutza ezinbestekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea urriaren 7an amaitzen da. Oinarriak eta argibideak [www.arbizu.eus](http://www.arbizu.eus) web orrian, Arbizuko Udaletxean. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago ere.

## IKASTAROK

**Etxarri Aranazko Udaren ikastaro eskaintza:** Soinketa lasaia (asteleheneren eta asteazkenetan, 16:30 - 17:25), koreografiak (asteleheneren eta asteazkenetan 17:30 - 18:25), tonifikazioa (asteleheneren eta asteazkenetan 18:30 - 19:25), haurrentako zirku tailerra (asteleheneren 17:00 - 18:00), pintura (asteartean 15:15 - 17:15), kognizio estimulazioa zahartze aktiborako (asteartean eta ostegunetan 11:00 - 12:00), berrerrabiltzearen artea eta joskintza (asteazkenetan hastapen maila eta ostegunetan hasi berriak), hiketan ikasteko ikastaroa (larunbatetan 10:00 - 12:00), euskara ikastaroak (948 468 258 edo [sakana@aek.eus](mailto:sakana@aek.eus)) eta Mintzakide taldeak (euskara praktikatzeko). Izen ematea zabalik dago irailaren 27ra arte udaletxean 10:00etatik 14:00etara edo [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) webgunean.

**Irurtzango ikastaro eskaintza:** Antzerki tailerra (asteazkenak 17:00-19:30), Irakurketa taldea (hileko 1. go osteg. 18:00-

19:30), Marraketa (Asteleheneren 16:00-19:00), Mantentze gimnasia (asteartek-ostegunak 17:30-18:20), Hipopresiboak (asteartek-ostegunak 17:00-17:55), Pilates (asteartek-ostegunak 18:00-18:55/19:00-19:55), Bizkortzea / GAP (asteartek-ostegunak 18:30-19:20), Kirol entrenamendua (asteartek-ostegunak 19:30-20:20), Gorputz jarrera (asteleheneren 16:45-18:45), Spining (asteleheneren 16:45-18:45), Izena emateko epea irailaren 27an amaitzen da. Informazio gehiago kultur etxean, 948 600 412 telefonoan, [kulturetxea@irurtzun.eus](mailto:kulturetxea@irurtzun.eus) edo [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) web orrian.

**Arakilgo ikastaro eskaintza:** Yoga Ihararren, asteleheneren eta ostegunetan, bi txandatan: 17:00 - 18:30 / 18:30 - 20:00 (Urriaren 4tik hasita urtarrilera arte, erroldatuentzako prezioa 80 euro / ez erroldatuentzako 90 euro), Soinketa Hiriberrin asteartean eta ostegunetan, 18:00 - 19:00 (Urriaren 5etik hasita urtarrilera arte, erroldatuentzako prezioa 45 euro / ez erroldatuentzako 55 euro), Eskulanak Etxarrenen asteleheneren 10:30 - 12:30, urriaren 18tik maiatzaren 30era. Izena emateko epea zabalik 634 584 226 - 948 500 101 telefonoan deituz, [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) - [info@arakil.net](mailto:info@arakil.net) postetara idatziz, irailaren 30era arte. Adiii! Hilabetero tailer ibiltariak egiten dira.

## OHARRAK

**Etxarri Aranatzaren tresna zaharren bilketa:** udalak baratzeak, etxeko, soroko etabarreko tresna zaharren erakusketa egin nahi du eta horretarako herritarrei deia egiten die etxean izan ditzaketen tresnak uzteko. Tresna guztiak izendatuko dira eta erakusketaren ondoren jabeen itzuliko zaizkie. Irailaren 24ra arte eraman ditzakezu kultur etxera, 18:00etatik 19:30era.

**Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak:** Lakuntzan erroldatutako 16 urteko gorako pertsonen zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu

barreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskaerak Lakuntzako Udalen erregistroan aurkeztu behar dira irailaren 30a baino lehen. Informazio osoa [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orrian eta udaletxean.

**Irurtzunen 0-3 eskolatarako diru-laguntza:** haurrak Haur Eskoletara eramateagatik bateragarritasuna sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago irailaren 30era arte. Baldintzak eta aurkeztu behar diren dokumentuei buruzko informazioa udal webgunean [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) eta udaletxean daude.

**Urbasa-Andiako haize erroten proiektuaren kontrako alegazioak sinatzeko eskaera:** Urbasa-Andia Bizirik plataformak deituta. Paperean sinatutako alegazioak dira aurkeztuko direnak eta lege balioa dutenak, beraz, <https://www.changeto.org/> bidez sinatu dutenei ere alegazioak sinatzeko eskatzen zaie. Irailaren 27a baino lehen sinatu behar dira, beraz, nahi duenak asteberri honetan sinatu beharko dituzte ondorengo toki hauek: Uhartea Arakilen Motxale tabernan, Lakuntzan Lagun Artean edo Kale txiki tabernan, Arbizun Juaniton edo Kiroldegiko tabernan, Lizarragan Bargazpin, Etxarri Aranatzaren Leku Onan edo Xapateron, Bakaikun Kobxo tabernan, Iturmendi Arizagan, Urdiainen Kaluxa tabernan, Altsasun Txalaparta tabernan edo Zelai albaitaritzaren klinikan eta Olaztikoa Ogi Berri okindegian.

**Irurtzango konpartsa:** Erraldoiak dantatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**Nabarmendu zure iragarkia**

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

## ESKELA



**Placido Mendoza Arbizu**

Zurre barre handia  
gure alaitasunaren argia

Beti gure bihotzetan egongo zara

**Etxekoak**  
Ziordia

## ESKELA



**Asuncion Sala Iribarren**

Gogoan ditugu zurekin bizitakoak, guztiak.  
Bidea egiten dugu haiekin, zurekin  
emazte, ama, amona

Maite duguna, maite dugu hainbeste...

**Etxekoak**  
Altsasu

## JAIOTZAK

- **Aiur Cortés Rodrigues**, irailaren 14an Altsasun
- **Ekai Ramirez de Alda Fernandez**, irailaren 14an Altsasun

## HERIOTZAK

- **Aurora Lopetegi Ortiz de Elgea**, irailaren 18an Lakuntzan
- **Placido Mendoza Arbizu**, irailaren 18an Ziordian
- **Mari Cruz Arruabarrena Iraurgi**, irailaren 20an Etxarri Aranatzan
- **Santos Lopez de Luzuriaga Larrea**, irailaren 21ean Altsasun
- **Asuncion Sala Iribarren**, irailaren 22an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**Hemen eta online**

iragarki laburak .eus

iragarki laburak .eus

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
[edo.eskelak@guaixe.eus](mailto:edo.eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€  
prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU**      **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6      Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Alfonso Tadeo, Alberto Ocaña, Amaia Gerrikagoitia eta Joxean Begiristainek asteazkenean aurkeztu zuten Bizikleta Eguna.

## Sakanako Bizikleta Eguna badu data: urriak 17

**TXIRRINDULARITZA** Bueltan da Mankomunitateak antolatutako Sakanako Bizikleta Eguna. 27. edizioa urriaren 17an izanen da, goizeko 9:00etan Irurtzunen hasi eta 13:00ak aldera Altsasun bukatuko dena. Sakandarrak izena ematera animatu dituzte

**Maidet Betelu Ganboa** SAKANA Asteazkenean aurkeztu zuten 27. Sakanako Bizikleta Eguna, *Sakanako Bizikletaz Ezagutzen* lelopean urriaren 17an izanen dena. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitia eman zituen azalpenak, alboan Barranka Txirrindulari Taldeko Alberto Ocaña, Aralar Txirrindularitza Taldeko

presidente Alfonso Tadeo eta Burunda Txirrindularitza Taldeko Joxean Begiristain ordezkaria zituela, hirurak Bizikleta Eguneko laguntzaileak.

Joan den urteko geldialdiaren ondoren, gogotsu itzuli da 27. Sakanako Bizikleta Eguna. "Eguna antolatu edo ez erabakitze azken unera arte itxaron dugu, udako oporrak pasatu arte, eta

ikusita pandemiaren egoerak nabarmen hobera egin duela, Sakanako bizikleta martxa ez lehiakorra antolatzea animatu gara, jendea gogotsu dagoelako; hori transmititu digute eta hori uste dugu guk ere, eta egun garrantzitsu honetan parte hartzea animatzen ditugu sakandar guztiak" nabarmendu du Amaia Gerrikagoitia.

Erabakia hartzeko azkenera arte itxaroten egon direlako berandutu da data. Urriaren 17an izanen da, eta goizeko 9:00etan abiatuko da Irurtzundik, Sakana gurutzatuta 13:00ak inguruan Altsasura heltzeko. Gosaltzeko geldialdia Lakuntzan egingen da, eta antolakuntzak edaria banatuko die partaideei. "40 kilometro inguru izango ditu ibilbideak, eta zailtasunaren aldetik ertaina da" azaldu du Barranka taldeko Alberto Ocaña. Barranka taldekoek zainduko dute ibilaldia, eta Aralar eta Burunda taldekoek autoa eta bitartekoak jarriko dituzte.

### Egun arrakastatsua

"Sakanan txirrindularitzarekiko zaletasun handia dago. Txirrindulari handiak atera dira bertatik, profesional izan direnak, eta aurten itxar dagoen denboraldian ere oso ongi ibili dira Aralar eta Burunda klubetako txirrindulariak. Zaletasun hori sustatzeko sakandarrendako bizikleta martxa ez lehiakorra antolatzea erabaki zen, 27 urtez arrakasta handia izan duena" nabarmendu zuen kirol teknikariak. Familia osoak, gazteak, helduak, bakarka, kuadrillan... modu guztietara parte hartzen dute sakandarrek, eta giro ederra egoten da.

Bestelako helburuak ere baditu Sakanako Bizikleta Eguna. "Esaterako, goiz ederra pasatzea kirola eginez; Sakanako herri, bide eta txokoak ezagutzuz; Irurtzundik aterata Sakana bizikletaz gurutzatzeko erronka osatzea, Altsasuko helmugara iritsiz; herri ezberdinetako sakandarren arteko harremana sustatzea eta beste asko" gaineratu zuen teknikariak, eta Sakanako Bizikleta Egunean parte hartu eta lehen-

bailehen izena emateko deia egin zuen, pandemia dela eta, beharrezko osasun neurri guztiak beteko direla ziurtatuz.

### Izena ematea: urriak 8ra arte

Sakanako Bizikleta Egunean parte hartzea dohainik da, baina egun horretarako beharrezkoak diren autobus, kamioi eta bestelako azpiegitura eta zerbitzuak behar bezala antolatzeko izena ematea beharrezkoa da eta zabalik dago, urriaren 8ra arte. "Sakanako ikastetxe guztietan eman ahalko da izena eta baita Mank-eko Kirol Zerbitzuan ere (948 464 866 edo [kirolak@sakanamank.eus](mailto:kirolak@sakanamank.eus))" azaldu zuen Gerrikagoitia.

Bestalde, ohiko oharrak errepikatu zituen: partaideak antolaketaz zehaztutako bidetik ezin direla atera, kaskoa derri gorrezkoa dela, egunerako bizikleta doitzeko edo puntuan jartzea ezinbestekoa dela eta segurtasunari begira uneoro antolaketazari kasu egitea. Atzetik autobusa eta kamioia joango dira, norbaitek martxa utzi nahi izanez gero, bizikleta kargatu eta autobusera igotzeko.

Autobusa goizeko 7:45ean abiatuko da Ziorditik, Sakanako Bizikleta Egunean izena eman duten partaideak herriz herri jaso eta Irurtzunerara, abiapuntura eramateko. Behin proba bukatuta, euren etxetara eramango dituzte. "Ea egun ona ateratzen den, hori da garrantzitsuena" nabarmendu zuten antolatzaileek.

**"JENDEA GOGOZ DAGOELAKO ANTOLATU DUGU BIZIKLETA EGUNA" AMAIA GERRIKAGOITIA**

## Zabaletaren beste txapela

**PILOTA** Zabaletak eta Olaizolak Masters CaixaBank Torneooko txapela jantzi zuten igandean goitik behera kontrolatu zuten finalean Elezkano eta Mariezkurrena 10 tantotan utzi eta gero. Etxarrengoaren jotzea ikusgarria izan zen. Zapora berezia du txapel honek, Olaizolaren azkena izango delako. Orain Sanmateotako ferian daude murgilduta pilotariak.



ASPE

## Igor Romeroren diseinua

**FUTBOLA** Lagun Artea futbol taldeak aurtengo ekipazio berria diseinatzeko lehiaketa deitu zuen. Bost proposamen aurkeztu ziren, eta guztien artean Igor Romerok diseinatutakoa aukeratu du klubak. Igandean, Zelai Berrin, Igorrek saria jaso zuen, eta talde argazkia atera zuen 1. Maila Autonomikoko taldearekin. Ekipazio berria salgai du klubak.



LAGUN ARTEA



## 1. AUTONOMIKOA GIZON.

## 4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - River Ega 1-4

## SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Lerinés 9

4 Lagun Artea 5

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATEAN

16:30 Lerinés - Lagun Artea (Lerin)

## Lagun Artea liderraren kontra

Azken partidako arbitraje penagarria ahaztu, eta liderra du aurkari Lagunek.

## 1. AUTONOMIKOA EMAK.

## 2. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Lourdes 0-5

## SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1 Kirol Sport 6

10 Altsasu 0

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATEAN

12:30 Mulier - Altsasu (Salesiarrak)

## Altsasuk Mulier arerio

Altsasuk Irati Igoa entrenatzaile ohiaren Mulier taldea du arerio bihar.

## FUTBOL PREFERENTEA

## 2. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Bidezarra 0-0

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 San Miguel 6

16. Etxarri Aranatz 1

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATEAN

17:30 Arenas - Etxarri (Aiegi)

## Etxarri Aiegira

Lehen puntua lortuta, Etxarri Aiegiko bidea hartuko du, Arenas baitu aurkari.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 1. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - San Fermin 5-0

## SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Altsasu 3

2 Arrotxapea 3

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATEAN

18:00 Baztan - Altsasu (Elizondo)

## Gol festa eta gero, Baztan zain

Altsasuk modu ezin hobean hasi du denboraldia. Bihar Baztan du arerio.

# Mundialak: Imaz, Erbiti eta Izagirre lanera

**TXIRRINDULARITZA** Nahia Imaz Munduko Txirrindularitza Txapelketako junior mailako emakumezkoen erlojupekoan 27. postuan sailkatu zen eta bihar, larunbata, lineako proban ariko da. Imanol Erbitik eta Gorka Izagirrek elite mailako lasterketa dute etzi

Flandesen jokatzeko ari dira Munduko Txirrindularitza Txapelketak eta asteartean junior mailako emakumezkoen erlojupekoa jokatu zen. Nahia Imaz Perez bertan lehiatu zen. Altsasuarrak behetik gora egin zuen, eta erlojupekoa despeditu zuten 55 emakumezkoen artean 27. postuan sailkatu zen (28:18). Alena Ivantxenko errusiarra izan zen munduko txapelduna (25:05).

Imazek aitortu zuen "errespetuarekin" ekin ziola erlojupekoari. "Beldur pixka batekin ateratzen naiz, egia esan, eta lehen bihur-guneak ez ditut behar bezala hartu; gero, ibilaldian aurrera egin ahala konfiantza hartu dut



Nahia Imaz Perez, astearterko erlojupekoan. ESPAINIAR TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

eta bukaera aldera indartsu ibili naiz. Lan ona egin dut, eta egindakoarekin kontentua nago" azaldu du txirrindulari altsasuarrak. "Erlojupeko honekin asko ikasi dut. Orain, larunbateko lasterketa dut buruan" gaineratu zuen Imazek. Izan ere, Nahia Imazen lana ez da oraindik bukatu. Bihar, larunbata, junior mailako lineako lasterketan parte hartuko du, Espainiako selekziozko gainontzeko kideekin batera: Laia Puigdefábregas, Lucia Ruiz eta Naroa Fernandez.

## Igandean Erbiti eta Izagirre

Igandean jokatuko da gizonzkoen elite mailako Munduko Txapelketako lineako lasterketa eta Pascual Monpalier Espainiako selekziozko hautatzailearen konfiantzako gizonak izango dira, atzera ere, Imanol Erbiti (Movistar) eta Gorka Izagirre (Astana). Alex Aranburu (Astana) eta Ivan Garcia Cortina (Movistar) talde buroak laguntzea izango da euren lana. Carlos Rodriguezek (Ineos), Gonzalo Serranok (Movistar), Roger Adriák (Kern Pharma) eta Antonio Jesus Sotok (Euskaltel-Euskadi) ostuko dute taldea.

# LAN BILA ZABILTZA?

Eman izena Sakanako Mankomunitateko kirol monitore, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lan poltsan!

## Baldintzak:

18 beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarrizko kirol titulazioa izatea.

## Izen ematea:

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan, 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com postan.

## Erabiltzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udalek eta Mankomunitateak zein entitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izan da. Ez da lan harremanik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

**Mank**  
s a k a n a  
Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua



Joxeja Maiza etxarriarra, Beriain igotzeko lehendabiziko maldetan.

# 28 sakandar Beriain gainera

**MENDI LASTERKETAK** Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean Beunza eta Ordoñez gailendu ziren, baina korrikalari guztiak izan ziren protagonista. Arrieta eta Zabala izan ziren lehen sakandarrak eta Beraza, San Martin eta Sakana Bizirikokoak ere podiumera igo ziren.

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Sakandarren batek podiumean muturra sartuko balu sekulako poza hartuko lukeela aitortu zuen Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean jokatzeko bezperetan Aralar Mendi elkarteko Juanjo Goikoetxea, eta behin baino gehiagotan sakandarrak podiumetik igo eta jaisten ikusi zituen antolakuntzako kideak, kontentua.

Izan ere, beste behin, oso arrakastatsua izan zen agian Nafarroako kilometro bertikalik gogorrena den proba –ez ahaztu 5 kilometrotan 1.023 metroko desnibela gainditu behar dela–, eta pandemia aurreko edizioekin alderatuta, soilik bukaerako auzate oparoa, dutxa zerbitzua eta txikikeriaren bat izan zituen faltan. Giroa bikaina baitzen, festa giroa. Sakandarrek ez zuten huts egin: 28k lortu zuten proba despeditzea, nabarmentzekoa.

Goizeko 10:00etan hartu zuten irteera izena emanda zeuden korrikalariak, binaka. Eguraldia fresko esnatu zen, korrika egiteko primerakoa. Lurrak ongi xurgatu zituen bezperan botatakoak, eta ez zegoen lohi aipagarririk. Lehendabizi atera zirenek lainoa topatu zuten erdialdetik gora, baina bukaeran atera zirenek, ez, ordea. Beriain puntan hotza zen nagusi, baina korrika egiteko ez zegoen trabarik.

Mikel Beunza eta Xabier Macias ziren aurtengo edizioa irabazteko faboritoak eta aurreikuspenak bete ziren. Azkenean Mikel Beun-

**"TXIRRINDULARITZA DENBORALDIA BUKATU DUDANEZ, ATERATZERA ANIMATU NAIZ" IGOR ARRIETA**

za beteranoa izan zen azkarrena (41:35). Txurregi taldeko korrikalariak minutu pasako alde atera zion Xabier Maciasi (42:44), eta hirugarrena Sestao taldeko Hodei Samaniego izan zen (44:07). Beunzak ez zuen 2015ean Aitor Osak ezarritako errekorra gainditu (39:54), baina Alkotzeko korrikalaria kontentua zegoen. Makina bat trofeo lortu zituen, proba irabazteaz gain, lehen beteranoa izan baitzen, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketako txapeliduna eta Nafarroako Km Bertikalen lehen beteranoa.

**Igor Arrieta, oso ongi** Igor Arrieta Lizarraga uharte arakildarrak mendian gora bizikletan bezain ongi dabilela erakutsi zuen. Sailkapen orokorrean 11. postuan sailkatu zen Lizarteko txirrindularia (46:26), eta hainbat sari jaso zituen: las-

## Sakandarrak

Sailkapen absolutua:

### • Gizonak

1. Mikel Beunza	41:35
11. Igor Arrieta	46:26
13. Eukeni Goikoetxea	46:31
30. Jose Luis Beraza	48:54
33. Juan Larrea	49:21
38. Javier Larraioz	50:18
43. Eneko Aramendia	50:34
57. Javier Borrega	52:19
69. Alatz Agirre	53:40
74. Joseba Galarza	54:11
78. Arkaitz Munarriz	54:38
82. Aimar Araña	55:23
92. Jose Javier Beregaña	55:56
99. Ioseba Iza	56:41
105. Jose Javier Maiza	57:15
115. Carlos Mañeru	58:08
121. Javier Marin	58:27
123. Xabier Etxeberria	58:49
153. Kepa Gordo	1:04:35
163. Julen Flores	1:08:02
167. Xabier Ganboa	1:09:06
169. Luismi Chaves	1:10:10
170. Fran Araña	1:10:15
175. Jokin Vilariño	1:46:55

### • Emakumeak

29. Maria Ordoñez	48:51
137. Marina Zabala	1:02:11
144. Erkuden San Martin	1:03:07
158. Ainhoa Beraza	1:06:20
165. Eneritz Karasatorre	1:08:39
176. Txaro Huarte	1:53:04



Txaro uharte, maldan gora. BERIAIN KB

terketako lehen juniorra, lehen sakandarra eta lehen uharte arakildarra. Jaioterrian, pozik zegoen. Denetarako balio ote duen galdeginda, irribarre egin zuen. "Txirrindularitza denboraldia bukatu dudanez, herriko proban, Kilometro Bertikalean aritzera animatu naiz. Eta egingo direkin kontentua nago" zioen, beti bezain umil. Hori bai, podiumera igo eta argazkietarako kokatzen esperientzia duela agerikoa zen. Beriaingo azken maldak lau hankatara nola igo zituen ikustea harrigarria izan omen zen. Bigarren sakandarra sailkapen orokorrean 13. sailkatu zen Eukeni Goikoetxea izan zen (46:31). Altsasuarra fin ibili zen, oso ongi.

### Jose Luis Beraza, sasoi

Jose Luis Beraza beterano uharte arakildarrak sasoi betean jarraitzen duela erakutsi zuen.

**"LEHEN SAKANDARRA IZATEA EZ NUEN INONDIK INORA ESPERO" MARINA ZABALA**

Pandemia aurretik inolako lasterketetan aritu gabe egonda, bere bueltan oso fin aritu zen eta sailkapen orokorrean 30. postuan sailkatu zen (48:54), probako hirugarren beteranoa. "2019ko denbora ia bera egin dut, 2 segundoren aldearekin. Urte eta erdi luze, horrenbeste denbora lasterketetan parte hartu gabe egon eta gero, errespetu pixka batekin ibili naiz, gehiegi estutu gabe, lehertuko ote nintzen beldur. Hori dela eta, agian denbora hobetu nezakeen, baina oso pozik nago, besteak beste, azkenean lasterketa batean parte hartu ahal izan dudalako, herrikoan, gainera, podiumera pare bat aldiz igo naizelako eta aspaldiko korrikalari eta lagunekin biltzeko aukera izan dudalako" zioen uharte arakildarrak. Lasterketako hirugarren beteranoa izateaz gain, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketan beterano txapelidunordearen saria ere jaso zuen Berazak eta datorren lasterketa heltzeko "irrikaz" dagoela aitortu zuen.

Emakumezkoetan Igone Campos eta Ainhoa Lendinez zeuden faboritoen artean, baina Maria Ordoñez iruindarrak sekulako

maila eman zuen eta ez bairik gabeko garaipena lortu zuen (48:51). 2019an Ainhoa Sanzek lortutako errekorra (47:54) hautsiko ote zuen, azken unera arte jakin mina zegoen, baina ez zen posible izan. Kontentu zegoen Ordoñez, bigarrenari, Naiara Irigoien burlatarrari bi minutu pasa atera zizkiolako (51:38). Hirugarren postuan Igone Campos sailkatu zen (53:18). Zumarraga-koak Ordoñezek baino 4 minutu pasa gehiago behar izan zituen.

### Marina Zabalaren mustutzea

Korrikalari sakandarren artean, Marina Zabala Sukia izan zen azkarrena. Kilometro Bertikalean mustu zen lakuntzerra, eta sailkapen orokorrean 137. postuan sailkatu zen (1:02:11), emakumezkoetan hamabosgarrena. "Nire lehenengo Uhart Arakil-Berian Km Bertikala izan da; betidanik joaten nintzen lasterketa hau ikustera, dagoen giroa asko gustatzen zitzaidalako. Beti inbidiaz, azkenean aurten parte hartzera animatu naiz, eta oso kontentu nago. Bidea nahiko gogorra da, dena aldapa gora, baina indarrak neurtzen jakinda, azkenean gailurrera heltzen zara. Egindako lanarekin kontentu nago, gutxi gorabehera espero nuen denbora egin dut. Oso gustura" azaldu zuen korrikalariak.

Lehen emakumezko sakandarra izatea ez zuen espero. "Uhart Arakilgo plazara iritsi nintzen, korrikalarietara oparitu zituzten opari poltsa jasotzera joan eta orduan esan zidaten. Harrituta geratu nintzen, ez bainuen inondik inora espero. Podiumera igotzeak lotsa ematen zidan, baina oso pozik, egia esan" aitortu zuen lakuntzarrak, irribarrez. Urriaren 3an Etxarri Aranatzeko jokatu den Mendira Joan-etorria izango da bere hurrengo erronka. "Ea Maiatzera joan etorri hori zer moduz ateratzen den. Pixka bat prestatu dut eta disfrutatzera aterako naiz" azaldu zuen.

**Erkuden San Martin, txapeliduna** Zabalaren alboan, eta bera bezala oso pozik zegoena Erkuden

**"ERRESPECTU PIXKA BATEKIN ARITU NAIZ, ETA 2019KO DENBORA IA BERA EGIN DUT" JOSE LUIS BERAZA**

## Podiumera igo ziren sakandarrak



**Igor Arrieta, zitu bizian.** Uhart arakildarrak mendian gora bizikletan bezain ongi moldatzen dela erakutsi zuen.



**Jose Luis Bezala, sasoi.** Beterano uhartearrak 2019ko ia denbora berdina egin zuen, 2 segundoko aldearekin.



**Marina Zabala, indarrak neurtzen.** Aurreikusten zuen denbora egin zuela azaldu zuen lakuntzarrak, indarrak ongi neurtu zituela.



**Erkuden San Martin.** Etxarriarra Nafarroako Km Bertikalen beterano mailako txapeliduna izan zen. Kontentu zegoen egindako lanarekin..

San Martin zen. Etxarriarra sailkapen absolutuan 144. postuan sailkatu zen (1:03:07), emakumezkoen sailkapenean hemezortzigarrena. "Oso gustura ibili naiz, zer esango dizut. Egindako lanagatik, baina horretaz aparte, mendian egon den giroagatik eta orain Uhart Arakilen dagoen giroagatik. Gutxika lehengora bueltatzen ari gara, bada garaia" zioen korrikalari etxarriarrak. Erkuden San Martin Nafarroako Km Bertikalen Txapelketako beteranoen mailako txapelidun handia izan zen, eta podiumaren gorenera igo zen.

Bestalde, uhart arakildar onen saria Igor Arrietak eta Txaro Huartek jaso zuten, herritarren eta gainontzeko korrikalarien txalo zaparrada artean. Korrikalariak gustura ibili ziren elkarrekin kontu kontari, askok

eta askok, aspaldiko partez, ez baitzuten elkar ikusten. Bukatzeko, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketako taldekako sariak banatu zituzten. Gizonezkoetan, Txurregi izan zen talderik onena, Sakana Bizirik taldearen aurretik. Hiru Herrik jaso zuen hirugarren saria. Eta, emakumezkoetan, Hiru Herri gailendu zitzaion Txurregiri.

Antolakuntzakoak, Aralar Mendi taldekoak, proba behar bezala atera zela nabarmendu zuten, ez zela lesio ez arazo aipagarririk gertatu. Beste behin, mendi korrikalarien festa ederra izan zen Uhart Arakilgoa.

**Hurrena, Etxarri Aranatzeko** Sakanan jokatu den hurrengo mendi lasterketa urriaren 3an goizeko 11:00etan abiatuko den 46. Mendira Joan-etorria izanen

da, eta gure korrikalarietara aste luze epea dute proba behar bezala prestatzeko. Etxarri Aranatzeko plazatik aterata, 1.065 metroan kokatuta dagoen Maiatzera igotzea eta plazara jaistea da erronka (10 km eta 557 metroko desnibela). Izena ematea zabalik dago [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) webgunean, urriaren 1eko 23:59ak arte (10 euro), eta gutxienezko adina 16 urtekoa da. Lasterketa Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatzen duen Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarria da.

**"OSO GUSTURA NAGO, EGINDAKOAGATIK, BAINA, BEREZIKI, DAGOEN GIROAGATIK" ERKUDEN SAN MARTIN**



Iker Gorriti, txapelarekin. ERRAN.EUS

## Iker Gorriti, Nafarroako 3. mailako txapeliduna

**AIZKORA** Uhart Arakilgo aizkolariak Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketa irabazi zuen

Berako Eztegarra pilotalekuak Nafarroako herri kirolen hiru txapelketa garrantzitsu hartu zituen irailaren 11n: Nafarroako Gizonezkoen Ingude Altxatze Txapelketa, Iosu Marturet antsoaindarrak irabazitakoa (18 kiloko ingudearekin 87 altxaldi); Nafarroako Emakumezkoen Ingude Altxatze Txapelketa, Maika Ariztegi iturendarrak lortutakoa (9 kiloko ingudearekin 94 altxaldi); eta Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako finala.

Aizkora finalean 5 aizkolari lehiatu ziren, Iker Gorriti uhart arakildarra tartean. Bi ontzako eta bi kanaerdiko erdibitu behar izan zituzten, eta hasieratik Iker Gorritik lehia oso estua izan zuen Iturgoiengo Iosu Santamariarekin. Aizkolari uhartearrak alde atera zuen eta lanak egiten azkarrena izan zen (10:29). 18 segundo atera zizkion Iosu Santamariari (10:47). Victor Suarez madrildarra hirugarren sailkatu zen (12:07), Endika Goia beratarra laugarren (12:18) eta Jacinto Etxekonanea beintzabalaiendarra bosgarren (13:20).

Txapela lortzearekin batera, beste sari garrantzitsu bat lortu zuen Iker Gorritik: Nafarroako 2. mailara igotzea. Baita bigarren sailkatutako Iosu Santamariak ere. Orain, 2. mailakoak dira.



Eszerretik eskuinera, Asier Vicente, Haizea Galarza, Berat Agirre, Eneriz Vesga, Raúl 'Patxu' López, Raúl Vilarriño eta Hodei Argüelles. SAKANA MOTORSPORT

#### Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Raul 'Patxu' Lopez Bartolomé Sakana Motorsport klubeko sorzaileetako bat da. Klubeko presidente izan da urte luzez, eta aurtan Eneriz Vesgari eman dio erreleboa. Urriaren 2an jokatu den 39. Urbasako Igoera antolatzen dabil, klubeko kideekin. **Aurreko urtean ez zen Urbasako Igoera jokatu, pandemiagatik, baina aurtan Nafarroako automobilismo proba ezagunena dena antolatzera animatu zarete.**

Guk urte hasieran urtero eskatzen dugu Urbasako Igoera antolatzekeo baimena, gero edozer gerta ere, eta paper kontuak aurrerazten ditugu, luze joaten direlako. Iaz ez genuen proba antolatu ez zegoelako baldintzarik, baina aurtan egoerak onera egin du nabarmen, eta maiatz aldera aurrera egitea erabaki genuen. **Pandemia dela eta betebeharrak ez diren al duzue?**

Neurriak asko arindu dira, eta gure proba mendian jokatzenez, aire librean, ez dago apenas arazorik. Beharrezko distantzia mantendu ezin bada maskara janztearekin nahikoa da. **Urbasako Igoera oso berezia da Olaztin.**

Bai, festetako egun handia izango balitz bezala. 8.000-10.000 pertsona etortzen dira, pentsa.

**Gaur, ostirala, itxiko da pilotuendako izena emateko epea. Nolako parte hartzea espero duzue?**

100 autoren muga jartzen dugu, asistentziarako eta lasterketa ongi ateratzeko ez dagoelako toki

# "Urbasan giro ona espero dugu"

**RAUL 'PATXU' LOPEZ BARTOLOMÉ SAKANA MOTORSPORT ESKUDERIA**

**AUTOMOBILISMOA** Sakana Motorsport eskuderia taldeak antolatuta, urriaren 2an 39. Urbasako Igoera jokatu da, eta eguna heltzeko irrikaz daude antolatzailleak

gehiagorik. Urbasako Igoera proba mitikoa da, oso ezaguna, eta beti betetzen dira 100 toki horiek, pilotuek beti ona etorri nahi izaten dutelako. Ez dugu gustuko, baina beti jendea kanpo utzi behar izaten dugu, eta aurtan ere horrela izango dela espero dugu.

**Aurtan Urbasako Igoeraren 39. edizioa jokatu da, urriaren 2an.**

Bai, azken egunotan aurreko probetako argazki zaharren dantza ederra dabil sare sozialetan (kar, kar). Autoen egiaztapenak bezperan egingo dira, ostiralean, eta larunbatean, igoera egunean,

**"SAKANA MOTORSPORT ESKUDERIA BERRINDARTU DUGU, ETA OSO POZIK GAUDE"**

13:00etan hasiko da entrenamendua. Segidan lasterketako bi mangak jokatu dira.

**Sakana Motorsportek, 10 urte daramatzazue proba antolatzen.**

Bai. Aurretik beste eskuderia batzuek antolatu zuten proba, baina 2011tik aurrera guk hartu genuen ardura. Hain zuzen ere horretarako sortu genuen Sakana Motorsport eskuderia, Urbasako Igoera gal ez zedin, proba sakandarra izateko eta bertako pilotuak babesteko.

**Zer nolako osasuna du eskuderiak?** Azken urteak ez dira errazak izan. 2018 urtean azken unean proba bertan behara utzi behar izan genuen, lasterketa bezperatan Nafarroako Gobernuak beste baldintza batzuk jarri zizkigulako, azken unean betetzea ezinezkoak zirenak. Horrek kolpe ederra eman zigun, lasterketarako diru nahikotxo aurre-

ratua genuelako, baina, hala ere, 2019an proba antolatu genuen. Joan den urteko geldialdia gure lokalean hobekuntza batzuk egiteko probestu genuen, eta aurtan martxan gaude. Gainera, jende berria sartu da taldera. Izan ere, 2018koa gertatu zenean, askok kluba utzi zuten, erreta. Baina automobilismoaren munduan ibiltzen diren sakandarrekin eskuderia berrindartu dugu.

**Hortaz, pozik egongo zarete.**

Bai. Gaur egun Arkaitz Irigoien, Eneriz Vesga, Haizea Galarza, Hodei Argüelles, Javier Goikoe-txea, Juan Antonio Vicente, Mi-

**"ANTOLAKUNTZARI KASU EGIN, ETA, BATEZ ERE, ONGI PASA DEZATELA OPA DIEGU ZALEEI"**

kel Mendinueta, Raúl Vilarriño, Sergio Flores, Asier Vicente, Berat Agirre, Ander Gurmindio, Koldo Razkin, Nerea Agirre eta ni neu gabiltza. Emakumeak ere animatu dira, eta poztekoa da. Ildo honetan, Haizea Galarza aipatu nahi nuke. Sekulako lana egin du, baina, tamalez, lasterketa egunean ezin izango da egon. Eskuderiako kideek animoak eman nahi dizkiogu.

**Tamaina honetako lasterketa baten atzean lan eta aurrekontu handia egongo da.**

Dirutza handia dago honen atzean: aseguruak, segurtasuna, burokrakia gestioak, hesiak, komunak, garbiketa, beharrezko ibilgailu eta beharrezkoen alokairua, trofeoak... hori gure lana kontuan hartu gabe, ordainezinak diren ordu pila sartzen baititugu. Aurrekontua ixtea zaila izaten ari da, baina Sakanako jende askok laguntza eman digu eta horri esker aterako da proba aurrera.

**Segurtasuna aipatu duzu.**

Nafarroako Gobernuak 2018tik eskatzen digu bezperatik, 19:00etatik, Urbasako portuko errepidea ixtea. Gure ardura da errepidea itxita mantentzea, eta segurtasuna jarri behar izaten dugu. 2019ko aurrekontuaren zatirik handiena hor joan zitzaigun, eta aurtan ere hala izanen da.

**Urbasa parke naturala da, eta, beraz, zaindu beharrekoa.**

Jakina, eta horregatik betebeharrak gehiago ditugu. Ildo honetan, zentzuz jokatzeko eskatzen diegu zaleei: sortzen duten zaborra gero bildu eta eraman dezatela, lan okerrera guztia garbitzea eta lehen zegoen bezala uztea da. Gogoan dut lehen jende asko bezperatik etortzen zela Urbasara, gaupasa egitera, eta askok dena botata uzten zutela. Orain benetako zaleak dira etortzen direnak, ez festa egitera datozenak, eta gehienek beren zaborra biltzen dute. Esaterako, 2019an, guztia primeran utzi genuen eta oso pozik zeuden Nafarroako Gobernuak.

**Sakandarrak Urbasako Igoerara hurbiltzea animatuko dituzue?**

Jakina! Ingurunea errespetatu dezatela, antolakuntzari kasu egin diezaiotela, proba baimendutako tokietatik jarrai dezatela, segurtasuna bermatzeko eta, bereziki, lasterketaz goza dezatela. Giro ona espero dugu, jendea gogotsu dagoelako eta Urbasak beti erakartzen duelako. Ea eguraldiak laguntzen duen.



Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aurkezpena. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Lau sakandar txapelketan

Ekain Alegre Gil eta Idoia Granizo Uribarrena altsasuaren lehenengo txapelketa izanen da. Oier Lakuntza Irigoien txapelketaren oholtzara itzuliko da, eta Eneko Lazkoz Martinez, oraingo txapeldunordea, txapelaren bila joanen da beste behin

## Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Aurreikusitakoa baino beranduago iritsi da 45. Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Urte hasieran egitekoa zen, baina COVID-19 birusak eragindako egoeratik atzeratzea erabaki zuten. Udazkenara arte, eta udazkena iritsi da. Ekainean jokaturako aurrekanporaketan ondoren, urriaren 2an hasiko dira Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final laurdenak. Guztira, 29 bertsolarik eman zuten izena txapelketan, eta 24 hasiko dira datorren larunbatean txapela lortzeko ibilbidean. Tartean lau sakandar: Eneko Lazkoz etxarriarra, Oier Lakuntza urdiaindarra eta Ekain Alegre eta Idoia Granizo altsasuarrak. Lau final laurden izanen dira, hiru finalaurreko eta finala, azaroaren 28an jokatu dena, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

Nafarroako Bertsozale Elkar-teak, txapelketaren antolatzaileak, esan duenez, pandemiak "hankaz gora jarri du bizitza, eta bizitzarekin batera bertsolaritza. Izurriak erabat moteldu du bertso plaza". Bertsolaritza Txapelketak bertsolaritzari bultzada eman nahi dio, "plazak berriz indartzen joan daitezten". Bertsolaritzaren eta

kultur sorkuntzaren "defentsarako" tresna izatea ere nahi du. "Kultura segurua da".

Pandemiak sortutako egoerari aurre egitea ez ezik, txapelketaren helburuetako bat da bertso zaletasuna dagoen tokietan sustatzea, eta zaletasun "ez hain handia" dagoen tokietan ezagutaraztea. Bestetik, bertsolariei goi mailako plazak eskaini eta ezagutzera ematea ere bada txapelketaren xedea. Bertsolaritzaren munduan aritzen direnak elkartzeko aitzakia ere bada. Amaitzeko, helburu nagusi

sietako bat Bertsolari Txapelketa Nagusian ariko diren nafar ordezkariak aukeratzeko txapelketa da.

## Txapelketa

Bi hilabetez Nafarroa goitik behera eta ezkerretik eskuinera zeharkatuko du Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Ekaineko aurre kanporaketan ondoren, txapelketak hiru fase izanen ditu, zortzi saiotan banatuta: lau final laurden, hiru finalaurreko eta finala. 24 bertsolari ariko dira urriaren 2an Izaban abiatuko den ibilbidean.

29 bertsolarik eman zuten izena Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Ekainean jokaturako aurre kanporaketetan hamahiru bertsolari sailkatu ziren. Aurre kanporaketetan parte hartzaile berriek eta aspaldi txapelketan parte hartu gabe zeuden bertsolariek parte hartu zuten, tartean Ekain Alegre eta Idoia Granizo altsasuarrak, bere lehenengo txapelketa jokatu dutena, eta Oier Lakuntza urdiaindarra, oholtzara itzuliko dena. Aurrekanporaketatik sailkatutako bertsolariekin batera, aurretik sailkatutako hamaika bertsolariek osatuko dute txapelketaren kartela; guztira, 24 bertsolari. Eneko Lazkoz aurreko

## Azaroaren 1ean, Altsasun

Lehenengo finalaurrekoa Iortia kultur gunean jokatu da, azaroaren 1ean, astelehena, 17:30ean. Bertan Izabako irabazleak eta sailkapeneko bigarren, hirugarren, zortzigarren, bederatzigarren eta hamalagarren sailkatutakoek parte hartuko dute. Saiotako sarrerak *bertsolarierak.eus* atarian eros daitezke, Zangozakoak izan ezik.

## Saioak

### Final laurdenak

- **Urriak 2, 17:30ean** Izaban (Zinema). Sakandarra: Idoia Granizo Uribarrena.
- **Urriak 9, 17:30ean** Tafallan (Kultur etxea). Sakandarra: Eneko Lazkoz Martinez.
- **Urriak 10, 17:30ean** Zangozan (Karmengo auditorioa). Sakandarra: Oier Lakuntza Irigoien.
- **Urriak 16, 17:30ean** Donezteben (Zinema). Sakandarra: Ekain Alegre Gil.

### Finalaurrekoak

- **Azaroak 1, 17:30ean** Altsasun (Iortia kultur gunean).
- **Azaroak 6, 17:30ean** Berriozarren (Entzunaretoa).
- **Azaroak 14, 17:30ean** Leitza (Herri aretoa).

### Finala

- **Azaroak 28, 17:00etan** Iruñean (Anaitasuna kiroldegian).

txapelketaren txapeldunordea izateagatik, aurtengoan zuzenean final laurdenetarako sailkatu da. Bertsolariekin batera epaileak, gai jartzaileak eta laguntzaileak ariko dira txapelketan. Joseba Beltza Bengoetxea etxarriarra epaile izanen da.

Izaban, Tafallan, Zangozan eta Donezteben jokatu dira final laurdenak, urriaren 2an, 9an, 10ean eta 16an, hurrenez hurren. 24 bertsolarietatik 18 sailkatuko dira hurrengo faserako, finalaurrekoetarako. Hiru finalaurreko izanen dira, lehenengoa, azaroaren 1ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Azaroaren 6an bigarren saioa izanen da, Berriozarren, eta hirugarrena azaroaren 14an, Leitza. Zortzi bertsolari sailkatuko dira finalerako. Iruñeko Anaitasuna kiroldegian izanen da, azaroaren 28an. Saio guztiak 17:30ean izanen dira, finala izan ezik, 17:00etan izanen dena.

### Bertsolariek

Idoia Granizo Uribarrena altsasuarrak izanen da lehenengo sakandarra 2021ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final laurdenetan parte hartzen. Urriaren 2an izanen da, Izabako zineman. Julen Zelaieta Iriarte, Eneko Fernandez Maritxalar, Endika Legarria Nuin, Patxi Castillo Graziarena eta Aitor Irastortza Arrizuriarekin ariko da. Gai jartzailea Alaitz Rekondo Ferrero izanen dira. Eneko Lazkoz Martinez etxarriarrak bigarren final laurdekoan parte hartuko du, Tafallako kultur etxean, urriaren 9an. Saioa Alkaiza Guallar, Alazne Untxalo Erregerena, Ekhiñe Zapiain Arlegi,

Erika Lagoma Pombar eta Urko Gartzia Aleman bertsolariek parte hartuko dute harekin batera. Gai jartzailea Ander Aranburu Arriola izanen da.

Zangozako Karmengo Aretoan Oier Lakuntza Irigoien urdiaindarra ariko da, urriaren 10eran. Harekin batera Joanes Illarregi Marzól, Xabat Illarregi Marzól, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria eta Mikel Lasarte Zia ariko dira. Zigor Gartzia Arregi "Zian" izanen da gai jartzailea. Urriaren 16an, Doneztebeko Zinemaren, Ekain Alegre Gil altsasuarrak ariko da. Julio Soto Ezkurdia, Josu Sanjurjo Altzuri, Iker Gorosterrazu Elizagoien, Egoitz Gorosterrazu Elizagoien eta Sahats Aleman Sadaba bertsolariek ariko dira bertan. Gai jartzailea Maialen Belarra Eñeterrea izanen da.

### Finalaurrekoak

Lehenengo finalaurrekoa Altsasun izanen da, azaroaren 1ean, Iortia kultur gunean. Bertan Izabako irabazleak eta sailkapenean bigarren, hirugarren, zortzigarren, bederatzigarren eta hamalagarren sailkatutakoek parte hartuko dute. Bigarren finalaurrekoa Berriozarko Entzunaretoan izanen da, azaroaren 6an, eta Tafallako irabazleak eta sailkapenean lehenengoak, laugarrenak, zazpigarrenak, hamargarrenak eta hamahirugarrenak parte hartuko dute. Azken finalaurrekoa Leitza-ko Herri Aretoan izanen da eta Zangozako eta Doneztebeko irabazleak eta sailkapenean bigarren, seigarren, hamaikagarren eta hamabigarren sailkatutako bertsolariek parte hartuko dute.



Andrea Santiago musikariak kontzertua eskainiko du bihar Altsasun. UTZITAKOIA

# Lasaitasunaren eta kaosaren artean

Madriren hasi zuen ibilbidea Andrea Santiago musikariak. Bertan kaotikoagoa dela azaldu du. Iruñeak, aldiz, konposatzeko lasaitasuna ematen dio. Bere musika "intimoa" dela esan daiteke. Bihar, larunbata, Iortia kultur gunean kontzertua eskainiko du

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Andrea Santiago "zorte handia" duen musika konpositorea da. "Oso laster aurkitu nuen nire proiektuarekin bat egiten zuen pertsona egokia: Borja Muerza". Banda "zoragarria" lortu zuela ere aipatu du iruindarrak. Betidanik gustatu izan zaio abestea, baina ez zuen uste ongi egiten zuenik. Gorabehera askoren ondoren, "COVID-19aren pandemiaren erdian", lana utzi zuen eta musikatik bizitzera erabaki zuen. Bihar, irailak 25, larunbata, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean kontzertua eskainiko du, Bira Nafarroan Barna programaren barruan. Sarrerak 5 eurotan eros daitezke.

Musikarekiko oroitzapen "gazi-gozaok" dituela aitortu du Santiagok. "Irakasle batek esaten zidan inoiz ez zuela neskato bat ezagutu gitarra hain gaizki jotzen zuenik". Gitarra klaseetan "asko sufritzen" zuela esan zion irakasleak amari, eta gitarra etxera eramaten zuen entseatzeko. Gurasoen lagun batek Fender gitarra bat oparitu zion orduan, gaur egun oraindik jotzen duena.

"Ez nuen teoria ikasi. Bakarrik jotzen eta jotzen nuen". Konposatu ere egiten zuen. "Hamalau urterekin, gutxi gorabehera, abestiak sortzen hasi nintzen". Gutxi gorabehera dio, "denborak dantza egiten didalako". Gitarra jotzen eta konposatzen aldi berean hasi zen.

Baina duela hiru urte inguru "salto egitea" erabaki zuen. Madriren bizi zen, eta kontzertu akustikoren bat eskaintzeko aukera sortu zitzaion. "Baina ez nuen erabakia hartuta. Beldurra ematen zidan". Pare bat hilabetez bere izebaren etxera joan zen, "inguru lasaia baita", eta bertan konturatu zen aspaldi nahi zuena zela. "Beldur eszenikoak, traumak eta lotsak atzera bultzatzen ninduen". Iruñera itzuli zen eta bere lehenengo EP grabatu zuen: *He Dejado de Buscar tu Casa*. Miguel Tiberio lagun musikariarekin harremanetan jarri zen, eta Borja Muerza ezagutu zuen, bateria jolea, ekoizlea eta Santiagorekin batera proiektuan parte hartzen duena. Ondoren, Nacho Muerzak eta Txumak osatu zuten taldea. "Bi urte

geroago nire lana utzi nuen. Pandemiaren erdian. Arriskua gustatzen zait".

"Egia esan, ez dugu lortzen genero bat aurkitzen". Pop alternatibo edo indie alternatibo gisa deskribatu daitekeela aipatu du. "Baina rock progresiboaren ukituak ditu, edo, orokorrean, abesti rockeroagoak daude". Beste aldaera bat ere badu: harana (el valle), "gutziz akustikoa dena". Hitzak, agian, intimista da. "Ez dakit zehazki zer den. Nire musikak generoetatik ihes egiten du".

2020an, pandemiaren erdian, *Las bestias que me acompañan*, *Materia viva* eta *La reina de las nieves* abestiak kaleratu zituen Santiagok, ondoren *Trilogía de las bestias* diskoan bildu zituenak. Ondoren, *De tu mirada* abestia kaleratu zuen, eta martxoan *Regresé* abestia publiko egin zuen.

## Telefonia

Sortzeko telefono mugikorrean dituen idatzitako notak behar ditu. "Erdi txantxa da; batzuetan esaldi bat datorkit burura eta telefonoan idazten dut. Ondoren,

abestia sortzen dut esaldi horretatik abiatuta". Beste batzuetan gitarrarekin ari da, "oso mugitua naizelako", eta ezerezetik bezala sortzen zaizkio abestiak. "Denak nire esperientziak dira, egunak".

Iruñea eta Madril artean bizi da, baina orain Iruñean gehiago bizi da. "Iruñean lasaigo nago, gehiago hozten naiz, nire inguruan nago eta hobeki konposatzen dut". Madriren kaotikoagoa bihurtzen dela, "urduriago", baina asko inspiratzen duela esan du musikariak. "Bertan urte luzez bizitzen egon nintzen, eta beti esaten dut bien artean bizi naitzela nire lagun minenak bertan daudelako. Baita nire ahizpa ere, lagun mina dena". Musikaren abentura bertan hasi zenez, oso gogoan du Madril.

Hamarkada bat egingo du musikaren munduan eta gai askotan "izugarri" ikasi duela esan du: "Abestiek pentsatzen nuena baino askoz energia kargatu handiagoa dutela, jendea ondoan dagoela, dena delakoa,

beti dago norbait, ez dela diskografika bat behar, baina bai aldiz lagun eta talde on bat izan". Abestiak bukatzea erabaki bat dela ere ikasi du, "bestela ez lirateke inoiz amaituko". Musikaren industrian gauza "tristeak" ere ikusi ditu, "baina horrekin dokumental bat egin genezakeen".

Urte hauetan ikusi duenagatik ere artista berriek laguntza eta aukera gehiago behar dituztela esan du Santiagok. Bira Nafarroan Barna programak, hain zuzen, Nafarroako artista berriak sustatu nahi ditu. "Iniziatiba oso ona da". Artista berriendako horrelako aukerak "beharrezkoak" direla azaldu du, "eta egia esan Nafarroan oso ongi ari dira egiten". Programarekin jarraitzea eta denbora luzez egotea espero du, "baita hedatzea ere".

Nolakoak dira Andrea Santiagoren zuzenekoak? "Hobe ikustera etortzea!". Bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean dago aukera.



## BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

## Aukera berriak - ETS

Datorren igandean, hilak 26, Lakuntzako frontoian ETS, taldeak bere estudioko bosgarren diskoa aurkezteko burutu duen bira amaituko da.

*Aukera berriak* da bere azken lanari izenburua ematen dion gaia, eta taldearen soinua eta filosofia bikain definitzen eta irudikatzen ditu.

Gaiak aukera berriak aprobeztatzera gonbidatzen gaitu, ez gaitzen haiei begira geratu, intentsitate erritmiko handiko musika oinarri alai eta mezu positibo batekin.

Azken lan honek Peio Reparazen musika moldaketak eta ekoizpena izan ditu, zalantzarik gabe, ska, pop eta rock erritmoen fusioan aditua.

Ion Maiak ere parte hartu du *Beste behin* abestiaren letran, Gorka Pastorrek teklatueta eta Ander Valverde *Logela honetan* abestian.

Oraingoan ere Baga-Biga zigiluak sinatu du diskoa, 2012an lehen diskoa kaleratu zuenetik ETS babesten ari baita.

2005ean hasi eta gero, Iñigo Etchezarreta (ahotsa eta gitarra), Ruben Campi (baxua), Floren Nuela (bateria), Javier Lucas (tronboia) eta Ruben Teseros (tronpeta) dira egungo boskoteari forma ematen diotenak.

Aurreko diskoek, *Hacia la luna* (2012), *Zure mundua* (2014), *Beldurrik ez* (2015) eta *Ametsetan* (2017), oihartzun handia izan dute publiko gaztearen artean, Spotifyn 2017an Euskal Herriko adingabeek gehien entzun zuten taldea izan zelarik.

Zalantzarik gabe, 2019an sinatu zuten azken lana, baina bizitzera egokitu zaigun egoera pandemikoa dela eta, orain zuzenean aurkezteko aukera izan dute, talde oso aktibo baten ibilbidea laburbiltzen du, bai estudioan, bai zuzenean. Talde horrek aukera berri horiek aprobeztatzen jakin du, eta bere konposizioetan heldutasuna lortzen joan da, orain adierazgarri duten eta gazteen artean arrastaka duen soinua mimo eta xehetasun handiz zainduz.

**Erkuden Ruiz Barroso** ARBIZU

Isiltasuna eta naturaren soinuak Iñigoren konbertsioaren lagun dira. Imanol Rayo Barandiaran zinemagile arbizuarrak horrela transmititu du Ignazio Loiolakoaren esperientzia. Proiektuan lagunak izan ditu ondoan: Javier Godino antzezle bakarra (Iñigo), Javier Agirre Erauso argazki zuzendaria eta Lamia Producciones ekoiztetzeko Iker Ganuza Taberna. 2020. urteko konfinamenduan bururatutako lana da, eta, margolari inpresionistek egiten zuten bezala, "etxetik atera" eta bertan grabatu zuen: Arbizun. Ignazio Loiolakoaren Konbertsioaren bostehungarren urteurrena da, eta astelehenean, irailaren 27an, Loiolan mustuko dute *Iñigo* filma. Dagoeneko sarrrerak agortu dira.

**Nola ezagutu zenuen Ignazio Loiolakoaren figura?**

Herri kulturaren oso ezaguna da. Zer esanik ez, berak sortutako Jesusen Lagundiak humanismoan izan zuen eragina erabakigarria izan zen. Errenazimenduari garaiaz ari gara. Kontuak kontu, beti egon da kondaira asko lehen jesuiten inguruan: Ignazio Loiolakoa, Frantzisko Xabierkoa, Pierre Favre, Simao Rodrigues... Postmodernismo garai honetan hain modan dauden supertaldeak direla eta, Lagundia historiako lehen supertalde intelektuala dela esan daiteke.

**Zerk erakarri zizun? Zergatik berari buruzko film bat egin?**

Jesusen Lagundia sortu zutenean Parisen, taldeak Veneziarako bidaiari egin zuen, negu gorrian, lehen ekintza esanguratsu bezala. Nire lehen asmoa bidai hori filmatzea zen. Bidai horretan, Iñigo falta zen, Azpeitira itzuli behar izan zuelako. Venezian elkartzea adostu zuen. Arazo bat zuen bidai hori filmatzeak: nola hitz egiten dute elkar hain lurralde desberdinetako jendeak? Zer jokabide dute? Irteerarik gabeko bidegurutze bat zen eta, azkenean, oso erakargarria izan arren, ideia bertan behera utzi nuen. Modu batean edo bestean, filmak bidai horretan egon ez zen pertsona bakarren zentratzea eskatzen zidan, proiektu hori guztia sortu zuen pertsona: Iñigo. Are gehiago, beraren bizitzako une esanguratsuenetako batean finkatzea; konbertsio edo bihurtzea. Honek zinematografikoki gauza erakargarri asko zituen: Pertsonaia bakar batean

# "Emanaldian filmak bizitza hartuko du"

**IMANOL RAYO BARANDIARAN ZINEMAGILEA**

Arbizuarrak Ignazio Loiolakoaren inguruko 'Iñigo' filma mustuko du astelehenean, Loiolan. Lan pertsonala da, filmaren zati handi bat Arbizuko Leziza errekararen inguruan grabatu dute



Imanol Rayo Barandiaran 'Iñigo' filmaren grabaketan. UTZITAKOIA

zentratzea. Barne bidaiari proposatzen duenez, nahitaezkoa zen elkarrizketarik ez izatea. Isiltasunaren ingurua sortu beharra zegoen. Naturaren soinuak; naturaren protagonismo soila. Georges Bernanosen esaldi fa-

**"FILMAN IÑIGOREN BARNE KONBERTSIO HORI HARRAPATZEA ZEN NIRE INTERESA"**

matua hartu nuen abiapuntu: "Lehen urratsa barrurantz eta isilean ematen da".

**Nola bururatu zitzaizun?**

Aurretik ideia pixka bat suspentsioan utzi nuen. Bat-batean konfinamendua iritsi zen. Honek zer pentsaraztea eman zidan. Orain dela bostehun urte gertatutakoa burura ekarri zidalako. Ignazio Loiolakoa, Barojak zioen moduan, ekintza pertsonaia peto-petoea zen. Bere garaiko baldintza sozioekonomikoan kokatutako pertsonaia tipikoa: gentilgizona, gerraria... Iruñeko batailan hanka apurru, eta sendatu ahal izateko Loiolako dorretxean hilabeteak geldirik egotera behartuta egon zen. Ekintza pertsonaia batentzat erritmo aldaketa ikaragarria zen. Zer esanik ez, honek berarengan izan zuen eragin psikologikoaz. Bostehun urte ondoren gizarteari antzeko zerbaite gertatu zaio: Eguneroko azkartasunean finkatuta, pandemia bat dela eta etxean giltzapetuta egotera behartu izan da. Paralelismo hori izan zen filma momentu batetik bestera aktibatzearen detonazioa. Nirekin lan egiten duten, Javier Agirre Erauso argazki zuzendari eta Javier Godino antzezle, ohiko kideei deitu nien eta ideia kontatu nien. Filma gerrilla moduan egiteko planteatu genuen, baina goi mailako baliabide teknikoekin, alde plastikoa oso garrantzitsua zelako. Eta horrela gauzatu da. Posproduktzioan Iker Ganuza filmaren ekoizle sartu da, eta sendotasuna eman dio proiektuari.

**Zein da helburua?**

Barne aldaketa hori harrapatzea zen nire interesa. Zinemak denboraren islatzean du ardatza.

Kanpoaldetik ikusita konpas geldoa duen ekintza batek ez du zerikusirik une berean pertsona baten barnean jarduten den konpas frenetiko edo barne gatazkarrekin. Azkenean, ideia hau garai guztietan indarrean dagoen kontzeptua da. Honek galdera nagusira eramaten gaitu: zer ematen du norbanako batek bizimoduz erabat aldatzera? Ez dago erantzunik. Artearen papera galderak egitea da, ez erantzunik ematea. Bakoitzak bere barne hausnarketa egin dezake, eta esperientzia pertsonalarekin osatu behar du. **Zein zen Jesusen Lagundiarekin zenuen harremana?**

Ez nuen beraiekin kontakturik. Filma erabat independentea da. Prestatzen hasi nintzenean beraiekin kontaktuan jarri nintzen jakinaren gainean egon zitezenean. Baina argi zegoen filma librea zela. Proiektua nola begirada. Pertsonala. Kasualitatea edo ez, aurten konbertsioaren 500. urteurrena ospatzen du Lagundiak eta filma amaituta erakutsi ondoren, ekitaldien barne programatzeko oso aproposa zela ikusi zuten. Beraien ideia izan zen Loiolako basilikaren barruan zine aretoa antolatzea eta bertan estreinatzea. Orain arte erabat ezohikoa den zerbaite izango da estreinaldia: 30 metro koadroko pantaila batekin eta soinu diegetikoak bertako kupuletan izango duen erreberberazioarekin performance itxura emango dio. Nolabait emanaldian filma berak bizia hartuko du, eta 500. urteko zirkulu bat itxiko du.

**Nolako izan da filmazio prozesua? Erronka izan da?**

Konfinamendutik ateratzen utzi ziguten lehen egunean buruan nituen dagoeneko filmaketa lekuak. Loiolako dorretxe barneko uneetatik aparte, argi neukan kanpoalde guztiak, filmaren %90, Arbizun egingo nituela. Sakanan. Duela 500. urte gaur egun hain industrializatuta dagoen Urolako eskualdeak izango zuen irudia nahiko gerturatzeko dela iruditu zait beti. Ezusteko handiagoa izan zen, konfinamenduko hilabeteetan naturak bere eremua berreskuratzen hasi zelako, eta dena erabat basati aurkitu genuelako, behar genuen moduan. Filma gehiena Arbizuko Leziza errekan eta Zizkerteko eremutan filmatuta dago. Guzti honetan badago margolari inpresionistek zuten jokabidearen tendentzia apur bat ere: etxetik atera eta han bertan margotzen hasi.



Cristobal Lanz, Alberto Guzman, Jesus Guinea, Andres Bengoetxea eta Txuma Morcillo. Erakusketa asteburuan ere zabalik egonen da.

# "Basaluzen egiten zen lana erakutsi nahi izan dugu"

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak sustatuta, altsasuar talde batek Basaluzen dorrearen maketa egin du, Gure Etxean ikusgai dagoena, Hiru Mendi Zerrak Trail Estazioaren eta prestatzen ari diren 5 ibilbide homologatuen aurkezpenarekin batera

## Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

### 1 Nondik sortu zen Basaluzeko maketa egiteko ideia?

2020an Altsasuko Mendigoizaleak klubekoak Altsasuko udal ordezkariekin bildu ginen, eta homologatutako 5 ibilbide egitea erabaki genuen. Horretan gaude. Lehen ibilbidea, Bargagain, Basaluzeko dorretik pasatzen da.

Dorrea berritzeko lanak egin berri ditu Nafarroako Gobernuak, eta bileretako batean alkateak mahai gainean jarri zuen gaia: Zer egingo dugu orain Basaluzerekin? Orduan pentsatu genuen: baina altsasuarrek ba al dakite zer zen Basaluze?

### 2 Hortaz, Basaluze zer zen erakusteko egin duzue maketa.

Bai. Basaluzen komunikazio dorre bat zen, telegrafo optikoko dorrea. 1844tik eta 1846ra bitartean eraiki zuten, eta 1855era arte lan egin zuten. Madril eta Irun lotzen zituen telegrafo optikoko dorreetako bat zen, 41. dorrea (lineak 55 dorre zituen), Nafarroan geratzen den bakarra, eta nola funtzionatzen zuen erakusteko maketa bat egitea erabaki genuen.

### 3 Nolako zen Basaluze?

Dorreak lehen telegrafoaren mekanismo guztia zuen gainean. Orduan 4 pertsona bizi ziren bertan, langileak. Behean biltegi antzeko bat zuen dorreak, erdiko pisuan euren bizitokia zegoen eta goiko partean telegrafo optikoaren mekanizatu guztia, euren lantokia.

### 4 Telegrafo optikoaren bidez mezuak zabaltzen ziren, ezta?

Bai. Madriletik zenbait linea ateratzen ziren, eta linea bakoitzean 20 kilometroka, gehienez, dorre bat jartzen zen, telegrafo optikoa baitzen; hau da, dorre batetik bestera ikusi beharra zuten, kataloxekin. Mezkiatik seinalea Ziordira bidaltzen zuten, bertatik Basaluzera, eta gero, C antzeko bat egiten zuen lineak, hurrengo dorrea Eguberako Dorre Txiki baitzen, eta hurrena Idiazabalen baitzegoen. Ere oso txikian dorre kontzentrazio gehiena zuen Sakanak.

### 5 Mezuak kodifikatuta zeuden?

Mezu motzak ziren; finean, zenbaki bat zen bidaltzen zena. Dorreak 12 posizio zituen: 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 zenbakiak eta bi letra, X eta M. Bertikalki igozten zituzten letrak. Bi bola antzekoak ziren, igozten eta jaisten zirenak eta aukeratutako letrak edo posizioak mugitzen zituztenak. Esaterako, 553 mezua bidaltzen bazuten, mezu horrek esanahi konkretua zuen, Madril eta Irunen bazekitena.

### 6 Zer nolako mezuak ziren trukatzeko zirenak, militarrek?

Mota guztietakoak, zibilak eta militarrek. Madril eta Irungo linea Donostiako Maté ingenia-

ri militar ezagunak eraiki zuten. Beraz, alde militarra bazuen.

### 7 Sistema azkarra zen?

Behin Irundik goizeko 6:00etan bidali zuten mezu bat, eta Madrilera 16:00etan iritsi zen. Garaian oso sistema azkarra zen.

### 8 Maketa egiteko orduan zein pausu jarraitu dituzue?

Hasteko dokumentazio lana egin genuen. Gero Alberto Guzmangana jo genuen; berak dorrearen maketa egin du, zurez. Guk, (Andres eta Jesus) dorrearen goiko partea egin genuen, eta Cristobal Lanzek lan mekanikoa, piñoiak eta kateak jarri eta mekanizazio prozesu guztia. Bukatzeko, elementu guztiak batu eta azkeneko ukituak egin genituen: margotu, argiak jarri, elementuak gehitu eta beste.

### 9 Prozesu luzea izan da?

Ez pentsa, hiruzpalau hilabeteko kontua izan da.

### 10 Zer esaten dizute maketa ikustera pasatzen direnak?

Jendea asko gustatu zaio. Garrantzitsua da orain jendeak jakin duela zer zen Basaluze; askok esan digute maketari esker ulertu dutela zer zen Basaluze.

### 11 Basaluzen berrituta, maketa egina... Eta, orain zer?

Basaluzeri bizitza eman nahi zaio, interesa badago. Aurki Altsasuko Udala Sakana Lanbide Heziketa Institutuarekin biltzekoa da, Basaluzen elkarlanean proiektu bat egitea proposatze aldera. Bestalde, garai bateko dorrea nolako zen irudikatu daiteke, edo bisitak egin... dena dago aztertzeko.

**gik**

DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

619 821 436

info@gkomunikazioa.eus

www.gkomunikazioa.eus

Foru plaza, 23-1. Altsasu



**EMAIOZU  
BULTZADA  
ZURE IRUDIARI**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe